



Genero-indarkeria eta babes-aginduari buruzko hausnarketa

(Reflection on Gender Violence and the Protection Order)



BARRENETXEA BEASKOETXEA, Eider

Aretxabaleta kalea, 6 - 1 ezk
48010 Bilbo
ebarrenetxea@icasv-bilbao.com

BIBLID [1137-1951 (2010), 20; 5-28]

Sarrera eguna: 2010.11.02
Onarpen eguna: 2010.12.29

H

azioarteak bultzatuta, genero-indarkeriaren trataera juridikoa guztiz aldatu da azken urteetan. NBEak erabilitako definizioa baztertuta, espainiar legegileak indarkeria hori familia gunean gertatzen den bortizkeriarekin nahastu du. Genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko sortutako babes-agindua lorpen positiboa da askotariko neurriak aurrikusi dituelako. Praktikan, ordea, zigor zuzenbidea erabiltzeko gehiegizko joerak eta erakutsi malgutasun ezak mesede eskasa egin die biktimei. Sakoneko hausnarketa egin behar da.

Giltza-Hitzak: Genero-indarkeria. Babes-agindua. Kautela-neurria. Familia-indarkeria. Zigor zuzenbidea. Hausnarketa.

F

ruto de la presiones internacionales, el tratamiento jurídico de la violencia de género ha cambiado radicalmente durante los últimos años. La legislación española, obviando la definición que propuso la ONU, vincula esta violencia con aquella que tiene lugar en el seno de la familia. La orden de protección surgida como herramienta para luchar contra la violencia de género ha supuesto un logro positivo, ya que contempla múltiples y variadas medidas. En la práctica, sin embargo, la excesiva tendencia a recurrir al derecho penal y la poca flexibilidad mostrada han hecho un flaco favor a las víctimas. Es necesaria una profunda reflexión sobre el tema.

Palabras Clave: Violencia de género. Orden de protección. Medida cautelar. Violencia familiar. Derecho penal. Reflexión.

R

ésultat de la pression internationale, le traitement juridique de la violence de genre a radicalement changé au cours des dernières années. La législation espagnole, ignorant la définition donnée par l'ONU, associe cette violence à celle qui se produit au sein de la famille. L'ordre de protection surgie comme un outil pour lutter contre la violence de genre constitue un important progrès, car elle prévoit plusieurs et diverses mesures. En pratique, cependant, l'excessive tendance à recourir au droit pénal et le manque de flexibilité dans son application ne bénéficient guère aux victimes. Une profonde réflexion sur le sujet s'avère indispensable.

Mots-Clés : Violence de genre. Ordre de protection. Mesure de précaution. Violence familiale. Droit pénal. Réflexion.



1. **Sarrera.** 2. **Genero-indarkeriari buruzko araudiaren aurrekariak.** 2.1. Nazioarte mailako aurrekariak. 2.2. Europar Batasuneko aurrekariak. 2.3. Estatu mailako aurrekariak. 2.4. EAEko eta Nafarroako araudia. 3. **Genero-indarkeriari buruzko zigor legedia.** 4. **Genero-indarkeriaren kontzeptua: garapena eta garrantzia.** 4.1. Genero-indarkeriaren kontzeptua. 4.2. Genero-indarkeria esamoldearen erabilera 1/2004 LOan eta horren balorazioa 5. **Zigor zuzenbidearen babes genero-indarkeria borrokatzeko tresna gisa.** 5.1. 1/2004 LOaren zenbait ondorio. Emakumeak babesteko "beharrizana". 5.2. 1/2004 LOak galdutako aukera. 6. **Erreformen berrikuntza eta ekarpenik garrantzitsuenak.** 7. **Kautela-neurriak.** 7.1. Kautela-neurrien ezaugarriak. 7.2. Kautela-neurri motak. 7.3. Zigor arloko kautela-neurriak ezartzeko betekizunak. 8. **PKLko 544 ter art.ko babes-agindua.** 8.1. Babes-aginduko neurrien izaera juridikoa. 8.2. Babes-agindua ezartzeko betekizunak. 8.3. Babes-aginduaren neurri penal nagusiak. 8.4. Izaera zehaztugabeko beste neurri batzuk. 8.5. Babes-agindua ezartzeko modua. 8.6. Babes-aginduaren iraupena. 8.7. Babes-agindua eskatzeko legitimazioa. 8.8. Babes-agindua ez betetzea. 8.9. Babes-agindua amaitzea. 9. **Babes-agindua ezartzea ahalbidetzen duten delitu eta faltak.** 9.1. PKLko delitu eta faltan zerranda. 9.2. ZKko 173.2 art.an jasotzen diren eta legearen arabera babes berezia behar duten pertsonen zerranda. 9.3. Aipatu delitu eta faltan berezitasunak. 10. **Ondorioak.** 11. **Bibliografia.**

1. Sarrera

Indarkeria pertsonen berezko ezaugarria den (ala ez) erabaki gabe dago egun. Hala ere, ezin uka dezakegu historian zehar bidaialagun izan dugun fenomeno dela, pertsona horien kultura, adina, sexua, klasea, erlijioa edo ezaugarriak edozein izanda ere.

"Genero-indarkeria"¹ mundu osoan zehar hedatua dago; hori dela eta, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) eta antzeko nazioarteko erakundeek indarkeria horren etsai ofizial gisa jarduteko ausardia izan dute.

Genero-indarkeriak munduko biztanleriaren %50ari eragiten diola esatea oker larria dirudi, genero-indarkeriak pertsona guztioi (%100ari) eragiten baitigu. Indarkeri horren biktima zuzenen kopurua zehaztea, ordea, beste kontu bat da. Horri dagokionez, baieztatu

daiteke, emakume guztiak ez bagara, gehiengoak izan gaitzkeela indarkeri horren jomuga, nahiz eta, andre guztiek ez dugun indarkeria hori maiztasun eta intentsitate berdinarekin sufritzen.

Lan hau, aipatu baldintzetatik abiatuta, bi ataletan banatuta dago: lehenengoaren helburua, emakumeen kontrako eta familia barruko indarkeriak izan duen trataera juridikoa aztertzea da; bigarren blokea, espainiar legegileak eratu duen armarik nagusiena, biktimaren aldeko "babes-agindua", definitzeko erabili dut.

Indarkeriaren trataera juridikoari dagokionez, NBEak "genero-indarkeria" adierazpenaren erabilera sustatu zuela gogoratuko dugu, eta termino hau emakume taldeek emakumei kulturalki erantsi edota inposatu zaizkien ezaugarri kulturalak izateagatik jasaten duten egitura-diskriminazioa aipatzeko sortu zutela.

Espainiar legediak, eta bereziki 1/2004 LOak², "Osoko lege" gisa ere ezagutuak, nazioarteko aurrerapenak ezagutu ere, bestelako apustua egin du. Izan ere, ez du genero-indarkeri mota guztien kontra borrokatzeko asmorik agertu, eta emakumei babes integrala kasu batzuetan bakarrik ematen die (zehazki, bere kontrako indarkeria erabiltzen duena bere bikotekidea edo bikotekide ohia denean), eta bestalde, familia arloan indarkeri egoeran dauden pertsonen aurka trataera eman die (erasotzailearekiko lotura bikotekidearena baino zabalagoa denean).

Gainera, estatu legeak eta praktikak izaera penaleko neurriak indartu ditu, neurri hezitzaile eta sozialak ahulduz, horiek bereziki erabilgarriak izan zitezkeen arren.

Lanaren bigarren atala kautela-neurria zer den, eta horren ezaugarri eta betekizunak zeintzuk diren azaltzeaz arduratzen da. Helburua, babes-aginduaren berezitasunean sakontzea da, horrek ez baititu -atxiloketa edo behin-behineko espetxealdi zigorrak bezala- kautela-neurrien ohiko betekizunak betetzen.

Bada bestelako berrikuntzarik ere. Genero-indarkeria eta familia bortizkeriagatik izapidetutako prozedurek jurisdikzio penalean eduki zibileko neurriak hartzea ahalbidetzen baitute.

1. Genero-indarkeriaren definizioa aurrerago emango dut, baina kontzeptu horren inguruko eztabaidak ugariak direla azpimarratu behar da.
2. Legearen izen osoa 1/2004ko LO, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako oso-osoko neurriari buruzkoa da.

Honek guztiak emakumeen diskriminazio egoera konplexua zaildu du, eta lege aldaketak gora-behera, konpontzeke utzi du (indarkeri egintzak ez baitira gutxiagotu).

Genero-indarkeriaren kausetan sakontzeko beharra dagoela ondorioztatuko dut aurrena; hurrena, berriz, lege teknikaren inguruko hausnarketa sakona egin eta lege bateratu eta koherentea behar dugula azpimarratu eta aurreneurriak hartzearen garrantzia aipatuko dut, indarkeriaren biktimei egokitutako laguntza sozialaren ezinbestekotasunaz hitz egiten amaitzeko.

Azken finean, genero-indarkeriaren fase guztiak kontuan hartzen dituen jarrera bateratua behar dugu; sortu aurretik, prebentzio eta hezkuntzarekin; hori sortzean, legedi eraginkor eta azkarrarekin; eta gertatu ondoren, biktimarentzako laguntzekin, eta, hala denean, erasotzailearentzako zigor edota berrezitzearekin.

2. Genero-indarkeriari buruzko araudiaren aurrekariak

2.1. Nazioarte mailako aurrekariak

Berdintasun eskubidea oinarrizko giza-eskubidea da, eta hauen gaineko nazioarteko itun guztiak ekarpen positibotzat jo behar dira. Batetik, itun hauek berdintasun aldarrikapenei ematen dieten esparru geografikoaren tamainagatik; bestetik, gizon eta emakumeen arteko berdintasun bidean konpromisoak hartzea berdintasuna bera errealagoa bihurtzen dutelako eta genero-indarkeria gutxiago ematea ahalbidetu beharko luketelako.

Aurrekari gisa har daitezkeen hitzarmen, aitopen eta itunak asko badira ere, emakumeen egoera bereizari erreferentzia zuzena egiten dioten itun batzuk baino ez ditut aipatuko. Hauexek dira aukeratutakoak: Emakumearen eskubide politikoei buruzko hitzarmena (1952), Emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko hitzarmena (1967), Emakumea eta haurra larrialdi egoeretan edo gatazka armatuan babesteko aitopena (1974), NBEak ospatutako "Emakumearen nazioarteko urtea" (1975) eta "Emakumearen hamarkada" (1976-1985), emakumeari buruzko munduko lau hitzaldiak –Mexikokoa (1976), Copenhaguekoa

(1980), Nairobiakoa (1985) eta Beijingoa (1995)–, Emakumearen kontrako diskriminazio modu guztiak ezabatzeko hitzarmena (1979), Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko aitopena (1993), Erromako estatutua (1998)³, Emakumeen kontrako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko borondatezko protokoloa (1999), NBEko segurtasun kontseiluak "Emakumea, bakea eta segurtasunari buruzko" berariazko saioa (2000) eta NBEko batzar orokorrak "Genero berdintasuna, garapena eta bakea XXI. menderako" izenburupean egindako saioak (2000).

Guztira, hiru fase ezberdinu daitezke nazioartean:

- Lehena, XX. mendeko 50-70. hamarkadetakoa. Sufragio berdina eskatzen zuen mugimendurekin hasita, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasun formala lortu zen, diskurtso juridiko huts gisa.
- Bigarrena, 70-95 urte artekoa. Mugimendu feministaren zabaltzea gertatu zen, eta horrek ezinezko egin zuen estatuek berdintasunaren aldeko aldarrikapenak baztertea, aldi berean nazioarteko atentzioa deituta, aurrerapen nabariak egin zirelarik. Lege eta hitzarmen formalen eraginkortasun eskasa onartu eta lorpenak errealitate bihurtzeko pausuak eman ziren.
- Hirugarrena, 1995etik gaur egunera arte. Emakumeen eskubideak garatuz eta edukiz bete ziren. Berdintasun juridiko-formala lortuta, gizarte sektore batzuk mesfidantzaz begiratzen dituzte feminismoaren berdintasun aldarrikapenak, diskriminazio positiboaren kontra agertuz, berdintasun formala eta erreala nahasten dituztelako. Gizarte bultzada lausotzen da.

NBEaren ekarpena erabakigarria izan da, zalantzarik gabe.

2.2. Europar Batasuneko aurrekariak

Batasunak emandako pausuak ere ugariak dira; izan ere, bere sorreratik emakume eta gizonezkoen arteko diskriminazioaren kontra borrokatzeko asmoa erakutsi zuen, eta gerora, berdintasunerako pausu espezifikoak eman ditu. Holakotzat hartu ditut: Emakumeen

3. Auzitegia 2002. urtean jarri zen martxan eta emakumeen kontrako indarkeria kasurik larrienak (bortxaketak, sexu-esklabotasuna, derrigortutako antzutea eta haurdunaldia) zigortu ahal ditu, horiek gerra estrategia gisa erabiltzen direnean.

eskubideei buruzko batzordearen sorrera (1984)⁴, “Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako europar urtea” edo “Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean zero tolerantzia kanpaina”⁵ (1999), DAPHNE Programak⁶, Genero berdintasunerako komunitatearen estrategia markoa (2000)⁷ eta Genero berdintasunerako europar institutuaren sorrera (2005)⁸.

Gainera, Europar Batasun bihurtu den komunitateko itunek ere emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna aldarrikatu dute, bere estatukideak berdintasun hori lan arlotik –hasieran– arlo soziala eta politikoraino zabaltzera bultzatuz.

EBak emakumeen egungo arazo ezberdinak ezagutzen dituela eta horien konponbideetara baliabide dezente bideratzen dituela esan daiteke. Berrogeita hamar urte baino gehiago behar izan dira. Europar parlamentuak eta europar komunitatearen justizia epaitegiak laguntza eman dute, eta baita emakume taldeek eta gizartearen presioak ere.

2.3. Estatu mailako aurrekariak

Zigor arloko aurrekariak gain, emandako aurrera pausoak eta egungo legediaren oinarriak aipatzean, hauexek azpimarratuko nituzke: Espainiako Konstituzioa (1978)⁹, 30/1981 Dibortzio legea (1981)¹⁰, 15/2005 Dibortzio espresari buruzko legea (2005)¹¹, Tratu txarren salaketa datuen lehen argitaraldia eta biktimentzako lehen harrera-etxearen sorrera (1984), 30/2003 legea Gobernuak egindako lege xedapenetan generoak duen eragina baloratzeko legea (2003) eta 3/2007 LO Emakumezko eta gizonezkoen berdintasun eraginkorri buruzkoa. Berdintasun Saila 2008an sortu izana aurrerapausoa izan zen, alderdi sozialista espainiarraren agindupean.

2000. urtetik aurrera, emakumeen egoera Europako estatu aurreratuenetan zutenaren mailara heldu zen. Juridikoki, legediak emakumeen eskubideak jaso eta diskriminazioaren kontra egin du, nahiz eta praktikan hutsune garrantzitsuak egon (eskuhartze politiko txikiagoa, lan eskubideen gutxiestea, genero-indarkeria, etab.).

Familia barruko bortizkeriaren¹² kontrako neurriak ere hartu ditu espainiar gobernuak, nazioarteko joerak jarraituz, horren aurkako oso-osoko planak onartuz¹³. Aipatu planen helburuetako bat, hain zuzen, emakumeen kontrako indarkeriari trataera hobea emateko lege aldaketak sustatzea zen.

Aldi berean, emakume eta gizonezkoentzako aukera berdintasunerako planak egin ziren, eta berdintasunerako plan estrategikoa 2008-2011. urteetarako.

XX. mendearen amaiera eta hurrengoaren hasierarekin emakumeen kontrako bortizkeriaren inguruko ardurak hartzea gertatu da. Tarte horretan eman dira lege aldaketa arin eta gehientsuenak; zigor legeak eta lege prozesalek bi erreforma izan zituzten 1999. urtean, hiru 2003. urtean, eta bat 2004. ean. Dibortzio legeak hobekuntza bat 2005. urtean, eta lan arloan eta zibilean beste erreforma bat 2007. urtean, 3/2007ko LOarekin, Emakume eta gizonezkoen berdintasun eraginkorrerako legearekin.

Erreforma hauek, jendarteak egindako presioaren aurrean arautzeko gehiegizko premiatasunak eraginda, ondorio ez desiragarriak izan dituzte ikuspegi juridiko batetik. Erreformatik osatugabeak, akasduak, kontraesanek beteak eta, batzuetan, saihestu nahi duten arazoarentzat kaltegarri izan dira.

4. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Castro, (2005, 1 eta hurrengoak).
5. Kanpaina horrek gerora antzeko kanpainak abiarazi ditu estatu, erregio, probintzia eta udalerrri mailan.
6. Egun 3. edizioa martxan da 2007-2013 urteetarako. Lehen argitaraldia Daphne I izan zen, 2000-2003. urteetarako eta bigarrena Daphne II, 2004-2008. urteetarako.
7. Eskubide ekonomiko, sozial, politiko eta hezkuntza eskubideez (kontzientziazioaz) ere arduratzen da. Estrategia marko honetatik ondorioztatuko da parte hartze politikoari buruzko estatu legeak aldatzeko beharrezkoa eta politikan “parte hartzeko parekotasun kuotak” ezartzeko ideia.
8. Hauetako batzuk Ministerio fiskalaren 4/2005eko zirkularrak ere aipatzen ditu. Sakontzeko, ikus web orrialdeko eranskina eta Magariños (2007, 47-54 bereziki).
9. Frankoren diktadura bitartean (1939-1975) emakumezko eta gizonezkoen eskubideak murriztu egin ziren, eta beraz, ezin da inolako garapen positiborik aurkitu emakumezkoen aldarrikapenetan. Kontrara, arlo askotan, atzera egitea ekarri zuen; boto eskubidearen galera (ez zen boto eskubiderik berreskuratu 1977. urtera arte!), familia bortizkeria gai pribatu gisa onartzea, emakumea zenbait egintza juridiko egiteko ezgaitasuna, etab. Konstituzioak, boto eskubidea aintzatesteaz gain, 14. art. an gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aitortu zuen.
10. Dibortziazko aukerak ordura arte emakume askorentzat sinesgaitza zen egoera irudikatu zuen: gizonekiko menpekotasun eza eta tratu txarretatik ihes egiteko aukera “legeztatua” (berarentzat eta bere ondorengoentzat eskubideak aitortzen zizkiona).
11. Lege honek ezkontza deuseztatzeko epeak txikitu zituen, genero-indarkeria moduko larrialdi egoerei irtenbide arinagoa emanez.
12. Familia barneko indarkeria “etxeko” indarkeriatzat jotzea arriskutsua dirudit, izan ere, arazoa pribatizatu eta gutxiesten dela ematen du. Horregatik, ahal izan dudanean, “familia-indarkeri” terminoa hobetu dut.
13. I. plana 1998-2000. urteetarako, II. plana, 2001-2004. urteetarako eta III. plana 2006-2009. urteetarako onartu ditu, horiei jarraipena emateko asmoz.

Beranduago izan bada ere (eta salbuespenak salbuespen), estatu mailako legediak Europar Batasunak markatu bidea jarraitu du. Hori ez da harritzekoa EBak politika horietako asko finantzatu egiten dituela jakinda, eta hartutako konpromisoak lotesleak direla kontuan hartuta.

2.4. EAEko eta Nafarroako araudia

Genero-indarkeria terminoa gero eta ohikoagoa da erkidegoko parlamentuetan. Horixe gertatzen da gure inguruan ere, esamoldearen erabilera honako legedian islatu delarik¹⁴:

- Nafarroako Foru Legea 22/2002, uztailaren 2koa, indarkeria sexistaren kontrako neurriak hartzeko legea¹⁵. Lege honek indarkeri sexista holaxe definitzen du bere lehen artikuluan:

Edozein indarkeri egintza edo eraso, sexu batek bestearekiko izan dezakeen nagusitasunean oinarrituta, baldin eta horrek emakumearentzat ondorio gisa badu edo izan badezake, kalte fisiko, sexual edo psikologikoa, baita horiek egiteko mehatxu eta derrigortzeak edo arrazoi gabeko askatasunez gabetzeak, horiek arlo publikoan zein familia bizitza edo bizitza pribatuan gertatu¹⁶.

- 4/2005 legea, otsailaren 18koa, berdintasunari buruzko Euskal Herriko legea. Bere VII. kapituluak, emakumeen kontrako indarkeriaz hitz egiten du, eta bere 50. art.ak hauxe dio:

Lege honen ondorioetarako, sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edota sufrimendua ekartzen badio edota ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan.

2007. urtean sortutako “Gizonduz” ekimena ere aipa daiteke (emakumearen inguruko institutuak, Emakundek eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz sortua)¹⁷. Honen helburuetako bat emakumeen kontrako indarkeriaren aurka kontzientzia gehiago sortzea eta, batez ere, gizonezkoen gaitzespena kaleratzea da.

90. hamarkadaren erditik, zenbait udalerritan berdintasun teknikari lanpostuak sortu ziren, mankomunitate edota udal mailan emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeko asmoz¹⁸.

3. Genero-indarkeriari buruzko zigor legedia

Zigor legedia osotasunean aipatzea ezinezkoa denez, gako batzuk baino ez ditut aipatuko¹⁹.

1995eko ZKaz geroztik, **11/1999 LOak**²⁰ biktima eta horren ingurukoengana hurbiltzeko debekua ezarri zuen²¹.

14/1999ko LOak²² zigor erantsi berriak aurreikusi, eta horiek faltan kasuan ere ezartzeko aukera eman zuen, indarkeriaren ohikotasuna definitu, eta subjektu pasiboaren zirkulua handitu zuen (Escuchuri, 2006; 260). Gainera, zigor prozedurari dagokionez, babes-agindua sortu zuen lehenengoz, izaera penal hutsekoa²³, besteak beste.

Hiru urte beranduago onartutako **38/2002 Legea**²⁴ aipatu behar dut. Honek arrisku larriko egoerei, genero-indarkeria egoerak tarteko, erantzun arinagoa eman nahi zien. Berme aurreikuspen gutxiago izateagatik kritikatu izan da.

27/2003ko Legea²⁵ genero-indarkeriaren kontrako erantzun bateratu bat koordinatzearen beharraz hitz egiten zuen, eta lehen aldiz, izaera mistoko neurrien sorrera bultzatu zuen, arlo

14. Aplikagarri diren beste lege batzuen inguruko informazio interesgarria Bizkaiko genero-indarkeriari buruzko behatokitiko web orrialdean aurki daiteke.
15. 12/2003 foru legeak aldatua, martxoaren 7an.
16. Jatorrizko testuaren lehen artikulua hauxe dio: “(...) A estos efectos se entiende por violencia sexista o de género todo acto de violencia o agresión, basado en la superioridad de un sexo sobre otro, que tenga o pueda tener como consecuencia daño físico, sexual o psicológico, incluida la amenaza de tales actos y la coacción o privación arbitraria de libertad, tanto si ocurren en público como en la vida familiar o privada”.
17. Ikus bere web orrialdea.
18. Bizkaian Barakaldok, Basaurik, Bilbok, Durangok, Galdakaok, Gernikak, Getxok, Leioak, Busturialdeko mankomunitateak, Lea-Artibaiko mankomunitateak, Uribe-kostako mankomunitateak eta Santurtzik dute teknikaria edo sail berezia.
19. Antzeko aipamenekin Díaz (2009; 335-337).
20. ZKaren II Liburuko VIII. Titulu aldatzeko legea, sexu-askatasuna eta ukigabetasunaren kontrako delituei buruzkoa.
21. Zehaztasun gehiagorako ikus De Lamo 2000, 1 eta hurrengoak.
22. 1995eko ZKaren aldaketa legea, tratu txarren biktimen babesari buruzkoa eta PKLko aldaketari buruzkoa.
23. Delitu egiten zen kasuetarako soilik aurreikusia (falta kasuetan ezin baitzen aplikatu). PKLko 544 bis art.an jaso zen hurbiltze debekua.
24. PKL partzialki aldatzeko erreforma delitu eta falta batzuk arin eta berehala epaitzeko prozedurari buruz eta prozedura arinduaren aldaketari buruzkoa.
25. Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzeko legea.

zibileko eta zigor arloko neurriak nahastuz, egungo babes-aginduaren aurrekaria sortuz, biktimen babesgabetasuna saihesteko (aldi berean laguntza sozialak aurreikusten zituelarik). Zoritxarrez, familia barruko indarkeria eta genero-indarkeria nahasten ditu, kontzeptu horiek sinonimotzat erabiliz.

Urte berean, **11/2003 LOak**²⁶ jauzi kualitatiboa egin zuen familia esparruan zigor zitezkeen portaera guztiak delitutzat jotzea erabakitzean, aurretiaz falta gisa kalifikatzeko aukera baitzegoen (lesio falta, tratu txarren falta edo armekin egindako mehatxu arinen falta)²⁷.

Tratu txarren egitura (ohikoak eta ez ohikoak) eta definizioa aldatu zituen, tipo astunduak aurreikusi zituen eta familia indarkeriaren subjektu pasiboen zirkulua handitu. Gainera, portaerak zigortzeko ezkontide, ezkontide ohien, bikotekide eta bikotekide izandakoan elkarbizitza betekizuna desagertu zen²⁸.

Aldaketa horiekin batera, **13/2003 LOak**²⁹ behin-behineko espetxealdia Konstituzio Auzitegiak galdatu betekizunetara egokitu zuen. Berrikuntza honek kautela-neurria ezartzeko arrazoi berri bat berriaz aurreikusi zuen; egotziak biktimaren ondasun juridikoen kontrako egintzak eragozteko erabiltzea onartu zuen, bereziki, biktima ZKko 173.2. art.an aipatu pertsonetako bat denean (legearen lehen artikulua PKLren 503.1.3.c art.ri erreferentzia eginez).

PKLko 544 bis art.ren idazkera berriak, hartutako neurriaren astuntzea ahalbidetzen du (horrela mantentzen da egun) egotziak neurria urratzen duen kasuetarako, behin behineko espetxealdia bihur daitekeelarik edo hartutako kautela-neurrien gogortzea dakarrelarik.

Urte "emankor" hartan, **15/2003 LO**³⁰ ere onartu zen. Lege honek prozedura zibilean seme-alabekiko bisita eta komunikazio erregimena etetera derrigortzen du epailea,

kondenatuari ZKko 48. art.ko zigor erantsietako bat ezarri bazaio eta biktimarengana edo beste inguruko pertsonengana hurbiltzeko eskubidea murriztu bazaio. Aldi berean, ZKko 57. art.ko zigor erantsiei denbora mugak ezarri zizkion, eta zigor nagusia espetxealdia den kasuetan, zigor hori eta zigor erantsien arteko bateragarritasuna onartu³¹. Zigorren etetea eta ordezkapenean ere aldaketak barneratu zituen. ZKko 620.2. art.ko faltan kasuetarako lokalizazio iraunkorra edo gizarte lanak ezarri zituen, isun zigorra baztertuz.

Aipatu 27/2003 legeak babes-agindua erregistro orokor baten inskribatzeko aurreikuspena betearazteko sortu zen **355/2004 ED**³², horren osaera, funtzionamendua, erregistratu beharreko babes-aginduak, horien edukia³³ eta erregistroen iraupena etab. zehaztuz.

Hain ezaguna bilakatu den **1/2004 LO**, Genero-indarkeriaren aurkako oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa, heldu zen gerora.

Lege honek neurri zibilak eta penalak batzen ditu, hezkuntza arlokoak, administrazio arlokoak eta sozialak, nahiz eta lehenengo bien kasua kenduta, horiei ez zaie lehentasun praktikorik eman.

Zigor arloari dagokionez, osoko legeak zenbait tipo astundu asmatu zituen biktima andrazko ezkontidea edo antzeko maitasun harremanez lotuta dagoen pertsona (izan) den kasuetarako, elkarrekin bizi ala ez, beti ere horien kontra lesioak, tratu txarrak, mehatxuak edo derrigortze delituak egitean (Escuchuri, 2006, 261).

Oraintsu, **5/2010 LO** indarrean sartu da, ZK berriz aldatzeko borondatez. Behingoz, genero eta familia-indarkeriari dagokionez, legeak aurreikusi aldaketak zigorren etetea eta ordezkapenean bakarrik eragiten duela dirudi.

26. Herri segurtasuna, familia-indarkeria eta atzerritarren gizarte-integrazioarako neurri zehatzei buruzko legea.

27. Hala ere, faltak delitu bihurtzean, eragile juridikoek tratu txarrak 153. art.ko delitu gisa jotzeko joera indartu zuen, ohiko indarkeria alboratuz (tipo honek portaeren ohikotasuna frogatzea galdatzen baitu), eta berriz ere, benetako arazoan sakontzea eragotziz kasu askotan (Laurenzo, 2008; 339).

28. Aurreko idazkerak ez zuen elkarbizitza berriaz galdatu, baina hori beharrezkotzat jotzen zen lege zibilak ezkontideak batera bizi zirela aurreikusten baitzuen. Hori dela eta, antzeko maitasun harremanez loturiko pertsonak elkarrekin bizi behar zirela ulertu zen. Hau da, interpretazio literalak bai, baina zigor arloan gailendu behar den interpretazio murriztaileak ez zuen onartzen zigorra elkarrekin bizi ez ziren bikotekide edo ezkontideei aplikatzea.

29. PKLko behin-behineko espetxe zigorrari buruzko erreforma legea.

30. 10/95 LO aldatzeko 2003ko azaroaren 25eko legea.

31. Zigorrek batera betetzeko aukerak badu justifikazioa; izan ere, eskubide gabetzaileak diren zigorrek erregimen irekietan bete daitezke edota espetxetik ateratzeko baimenekin osa daitezke, eta aurreko aurreikuspen hori egin ezean, irtenaldi hauetan zigor erantsiak ez leudeke indarrean, biktimentzako ekar dezakeen babesgabetasunarekin. Lege hutsunea bete zuen, beraz, aurreikuspenak.

32. Etxeko-indarkeriaren biktimen babeserako erregistro orokorra arautzeko errege dekretua.

33. Eman beharreko gutxieneko edukia hauxe da: babes-agindua eratortzen den prozedura edo epai zenbakia, babesaren hasiera data, urruntze-agindua bete behar duen pertsonaren identifikazio datuak, babestu nahi den pertsonaren datuak, aginduak dakartzan neurri zibil eta penal zehatzak eta horien iraupena.

4. Genero-indarkeriaren kontzeptua: garapena eta garrantzia

Emakumeek osatuko taldea da indarkeri gehien pairatu duen gizarte-taldea, baina historikoki arlo pribatuan aritu direlako indarkeri hori ezezaguna izan da (edo ezkutatua), horrek ekarri duen babes ezarekin.

“Etxe barruko arazoek” ez dituzte agenda politikoak bete, eta genero-indarkeriaren aitortpen publikoa eta horren ezagutza ezinbestekoak dira fenomenoari aurrea hartzeko.

Genero-indarkeriak gizonezkoei botere gehiago eman dien neurrian eta jendarteko arlorik baloratuenetan mantentzea baimendu duen neurrian, emakumei arlo pribatua (botere-gabekoa) utzi die. Zentzu honetan, indarkeria emakumeak makurrarazteko beste bide bat izan dela esan ohi da. Beraz, indarkeria hori sakoneko arazoaren isla da, hau da, bidezkoa izan ez den botere-banaketaren isla. Emakumeen kontrako indarkeria berdintasunerako borrokan kokatu behar dugu, ondorioz.

Ortubay-ren hitzetan, “Indarkeria gizonezkoen nagusitasun egoeraren abusua da, eta neurri berean, emakumeen kontrako diskriminazioaren isla eta hori mantentzeko tresna da”³⁴ (Ortubay, 2004; 236). Genero-indarkeriak egoera pribilegiatu bat indarkeriaren bidez luzatu nahi duela esan nahi du honek.

Berdintasun juridikoa, ordea, ez da nahikoa, eta horregatik, aspaldi, diskriminazio positiboaren bidea jarri zen abian.

4.1. Genero-indarkeriaren kontzeptua

4.1.1. Nazio Batuen Erakundeak emandako definizioa

NBEak genero-indarkeria horrela definitu du:

Edozein indarkeri egintza, horrek sexu femeninoan oinarria badu, betiere emakumeari kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa ekarri badio edo ekar badiezaiokie ondorio gisa, edo egintza horiek egitearekin mehatxu egiten bazaio emakumeari, derrigortu egiten bada edo nahierara askatasunez gabetzen bada, horiek bizitza publikoan zein

pribatuan gertatu (Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko 1993ko Adierazpenaren 1. art.).

4.1.2. Genero-indarkeria adierazpenaren hedakuntza: Beijing 1995

NBEak deituta, 1995ean, Emakumeari buruzko laugarren goi-bilera ospatu zen Beijing-en (Txinan). Hitzaldi hartan, Beijingo Plataforma sortzeaz gain, “genero-indarkeria” adierazpidea sustatu zuen erakundeak, errealitate hori izen bakarrez ezagutarazteko helburuz.

Hitzaldi hartara bildutako feministek genero-indarkeriak sorteria patriarkatuan duela aldarrikatu zuten. Gainera, patriarkatua boteredunek euren biziraupenerako egindako eraikuntza soziala dela defendatu zuten. Patriarkatua ordena aldaezintzat aurkezten zutenen aurrean, ordena ikasia eta sortua dela, eta ondorioz, aldagarria dela azpimarratu zuten. Horregatik ezberdinu behar dira eraikuntza soziala edo generoa (aldatzeko moduko ezaugarriak) eta errealitate biologikoa edo sexua (osagai iraunkoragoak). Beraz, mugimendu honen iritzi, patriarkatuak hartzen ditu andrazkoak bere mende, eta horren arrazoia ez dira andrazkoen ezaugarri biologiko-sexualak. Baieztapen hori zuzena bada, patriarkatuak sortutako genero-indarkeria ere aldagarria dela ondoriozta daiteke.

Beijingo goi-bilerak, feministen aldarrikapenak aintzat hartu eta genero-indarkeria esamoldearen erabilera hedatu zuen mundu osoan; horixe egin du oraintsu espainiar legediak, baina modu nahasian, aurrerago esango dudana bezala.

4.2. Genero-indarkeria esamoldearen erabilera 1/2004 LOan eta horren balorazioa

Emakumeen kontrako indarkeriaz hitz egiteko izen ezberdinak erabili izan dira historikoki; “etxeko bortizkeria”, “familia indarkeria” eta “indarkeria matxista”, bereziki. Mugimendu feministak “indarkeri sexista” eta “indarkeri patriarkal” esamoldeak ere erabili izan ditu. Baina esamolde horiek guztiek ez dute beti fenomeno berdina deskribatzen.

34. Jatorrizko testuak hauxe dio: “La violencia es un abuso de la posición preponderante de los varones y, en esa medida, constituye al mismo tiempo una manifestación y un instrumento para mantener la discriminación de las mujeres”.

Hein baten, genero esamoldea erabiltzeak emakumeen kontrako indarkeriaren errealitatea iluntzen du. Batetik, emakumeak “ikusezin” bilakatzen dituelako, ez baititu berariaz aipatzen. Horrela, gizonezkoek sufri dezaketen indarkeria ere barnebil dezake, horiek ere generoa, izan, badutelako. Bestetik, familia arloko indarkeria eta genero-indarkeria nahasten dituelako, gizonezkoen nagusitasunarekin beste zenbait pertsonak izan dezaketen nagusitasun egoera alderatuz (adibz. gazteenek zaharrekiko), horiek estatistikoki askoz gutxiago eman arren. Horrek patriarkatuak jokaten duen paperaren garrantzia gutxien du jendartearen begietan (indarkeria edozein talde babesgabek maila berdinean eta arrazoi berdinegatik pairatzen duela pentsaraziz).

Genero hitza egun jendartearen txertatua dagoen hitza da, baina, era berean, esamoldeak bere indar politiko eta errebindikazio-indarra galdu du, esanahi neutro baten truke. Horrek erakargarriagoa bihurtzen du terminoa jendartearen sektore kontserbatzaileenentzat.

Nazioarteko erakundeek bultzatutako genero-indarkeriaren kontzeptuaren helburua subjektu pasiboa azpimarratzea zen, hau da, indarkeria hori emakumeek jasaten dutela azpimarratu nahi zuten. Subjektu pasiboak rol femeninoa atxikia izan behar du, subjektu aktiboaren sexua edo rola garrantzirik ez duelarik, hau gizonezkoa edota emakumezkoa izan baitaiteke (Laurenzo, 2008; 346-347). Nazioartean erabili esamoldeak, beraz, indarkeri mota honek oinarria egitura-arazo batean duela onartzen zuen.

Osoko legea nazioarteko akordioak islatzen ahalegindu da, guztiz lortu gabe. 2004. urteko abenduaren 28an, familia barneko indarkeria borrokatzeko jarraikako lege erreforma ugariaren ostean, 1/2004 LO onartu zen, genero-indarkeriaren kontrako osoko babes-neurrien legea³⁵. Legeak termino bakarra erabiltzen du errealitate ezberdinak aipatzeko, oraintxe azalduko dudako moduan.

Alde batetik, legeak zioen azalpenean zera ezarri zuen:

Genero-indarkeria ez da esparru pribatuan eragina duen arazoa. Aitzitik, gure gizartean dagoen desberdintasunaren agerikorik ikaragarriena da. Emakumeen aurka, emakume izateagatik gauzatzen den indarkeria da,

erasotzaileek uste dutelako emakumeek ez dituztela askatasun, errespetu eta erabakitze gaitasunari buruzko gutxieneko eskubideak (I puntua).

Baieztape eta aitortza hau NBEak erabili duen kontzeptuarekin bat dator; izatez, zioen azalpenak NBEak erabili kontzeptuari egiten dio erreferentzia, eta baita bestelako nazioarteko hitzarmenei ere (II Puntua)³⁶.

Hala ere, lege-manuetan, lehenengo artikulutik hasita, bi kontraesan ematen dira zioen azalpenarekin alderatuz gero.

Lehen artikulua haxe zehazten du:

Lege honen xedea da indarkeriaren kontra egitea, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun egoeraren eta gizonek emakumei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa.

IV. Tituluak, zigor babesari buruz hitz egiten duen tituluak, ordea, bestelako subjektu pasiboak barnebiltzen ditu babes objektu gisa 36. art.an eta hurrengoetan. Ikus daitekeenez, genero-indarkeriaren biktimekin batera, familia esparruan gertatzen den indarkeriaren biktimek ere babesten dira (bereziki, pertsona nagusiak, adingabeak eta ezgaituak).

Bi ondorio atera ditzakegu:

1. Genero-indarkeriak legeak jaso ez dituen egoerak ere barnebiltzen ditu. Espainiar legegileak ez ditu aurreikusi emakumeen salerosketa, sexu-organoen ebakuntza edota emakume zein neskatoek lagunen edo ezezagunen eskutik jasaten duten indarkeria, adibidez, horiek maiz genero femeninoaren parte izateagatik gertatzen diren arren.
2. Legeak genero-indarkeriatzat jo du izatez ez dena. Familia inguruko beste pertsona batzuentzako babes berezia aurreikusi du horiek ahuldade egoeran baldin badaude. “Familia indarkeria” edo “etxeko bortizkeria” deritzona gehitu du, horri estatus berdina emanez.

35. Lan osoan zehar 1/2004 LO, Genero-indarkeriari buruzko legea edo Osoko lege gisa izendatuko dut, bereizi gabe.

36. II. Puntua testualki haxe esateraino heldu zen: “Legearen xedea da nazioarteko erakundeek gomendioak kontuan hartzea, emakumeen aurka gauzatzen den indarkeriari erantzun osoa emateko”.

5. Zigor zuzenbidearen babesaren genero-indarkeria borrokatzeko tresna gisa

Zigor zuzenbidearen babesaren ezinbestekoa da zenbait kasutan, baina Ortubayk dioen bezala “sarritan babes hori berandu heltzen da, ez du arazoa konpontzeko gaitasun eraginkorrik, eta prebentziorako ahalmen mugatua duela ere jakin beharra dago” (Ortubay, 2007; 13)³⁷.

Zuzenbideak ez ditu emakumezkoen arazoak konponduko, baina behintzat, ez litzateke oztopo izan behar; hau da, zuzenbideak emakumezkoak irudikatu eta tratatzeko modua ez litzateke gehitu beharreko arazo bihurtu behar. Batzuetan legeak eurak dira benetako berdintasuna lortzeko zailtasunak sortzen dituztenak (amatasun legeak, testuen ikuspegi androzentrikoa, emakumeentzako aurreikuspen berezien falta, etab). Zuzenbideak badu testuingururik, eta errealitate horretatik sortzean, ez da neutrala, emakumeen kontrako diskriminazio kutsua hartzeraino heltzen delarik.

Neurri gabeko kriminalizazioaren aurrean, alternatibak bilatu beharra dago, Maquedak dioen bezala (Maqueda, 2008; 374). Orain arte erabilitako bideen arrakasta murrizta ikusita, bitartekaritza izan daiteke horietako bat, horren erabilpenerako beldurra bazter utzita.

5.1. 1/2004 LOaren zenbait ondorio. Emakumeak babesteko “beharrizana”

1/2004 LOren helburua genero-indarkeria borrokatzea zen.

Legeak, indarkeria prebenitu eta ezabatzeko asmoz, arlo ezberdinetan esku-hartzea aurreikusi zuen, errealitatearen konplexutasuna onartuz eta tresna ezberdinen erabilera ahalbidetuz; sentsibilizazioa (3 eta 15. art.ak), biktimentzako laguntza sozialak (19 eta 27. art.ak), berdintasuna sustatzeko hezkuntza-neurriak (6 eta 7. art.ak), eta biktimak babesteko zigor arloko neurriak eta neurri zibilak (33. art.a eta hurrengoak), garrantzitsuenak aipatzearen.

Aurreikuspen horiek guztiak albo batera utzita, legeak zigor zuzenbidearen babesaren auzimarratu du batez ere. Zentzu horretan, zigor

araudi berriaren ezaugarritzat jo dira, aurreko urteetako joera jarraituz, zigor astunagoak ezartzea eta familia-indarkeriaren biktimizatzen har daitezkeen subjektuen kopurua zabaltzea.

Interesgarria da legegileak genero-indarkeriaren barruan familia gunean³⁸ ematen den indarkeria soilik jasotzeko izan dituen arazoien gainean hausnarketa egitea. Historikoki –Bodelónnek dioen bezala– emakumeak arlo publikotik pribatura baztertuak izan dira, hau da, familia arloa (Bodelón, 2008; 284-285). Familia estatuaren kontrol eta mantentzerako erakunderik garrantzitsuenetakoa da. Legegileak emakumea eta familia maila berean, arlo pribatuan, kokatzen ditu.

Feminismo sozialak legeak bultzatu duen “emakumeen irudi biktimizatua” zalantzan jarri du, emakumea subjektu babesgabe eta ahulago gisa, estatua eta patriarkatuaren babes beharrean irudikatu duen heinean. Indarkeriaren biktima gisa aurkezten ditu legeak, baina ez beti desberdintasunaren biktima. Horrek arazoa arazo individual gisa ikustea dakar, eta ez egiturazko arazo kolektibo gisa. Indarkeria sufritu duen emakumearen inguruko estereotipoa sortzen da; zalantza bete, interesatua eta menekoa (egosbera). Zigor prozeduran agente juridikoek (polizia, abokatu, fiskal, epaile etab.ek) dute erabaki ahalmena, biktimak berak zer nahi duen edo zer iritzia duen kontuan hartu gabe (honen adibide da biktimak salaketa bertan behera uztea erabaki arren, prozedurak artxibatze ezintasuna).

Inguru horretatik urruntzeko, indarkeria pairatzen duten emakumeek zailtasunak izan ditzakete. Egia da oreka aurkitzea ez dela erraza, eta legegileak asmo txarrez jokatu ez duen arren, eta gizartearen laguntasuna ematen ahalegindu den arren, sorturiko legeen bidez emakumeak babesgabeen pare jarri ditu (ezgai eta adingabeekin alderatuz). Eragile juridikoen eginkizuna hauxe litzateke, ondorioz: emakume bakoitzak hartu beharreko erabakiak hartzeko behar duen denboraren igarotzea ahalbidetzea, eta euren egoera aldatzea erabakitzen dutenean, hala bada, laguntasuna eskaintzea.

Indarkeriaren salaketak jatorri ezberdina izan dezake; biktima, senidea edo hirugarrena. Hori ere kontuan hartu beharrekoa da, laguntzarik nahi ez duena laguntzea ez litzateke eta estatuaren funtzioa izan behar.

37. Jatorrizko testuak hauxe dio: “(...) también hay que saber que a menudo llega tarde, carece de cualquier eficacia reparadora y posee una limitada potencialidad preventiva”. Antzeko jarrerekin, Asúa (2008, 134) eta Laurenzo (2008, 355).

38. Familia gunea zentzu zabalean ulertuta, arlo afektiboari erreferentzia eginez.

Bitartean, emakumeak indarkeri egoerak jasan arren haiek ez salatzeraz zein arrazoik bultzatzen dituen jakitea interesgarria litzateke. Graziosik zera dio:

(...) bada zerbait jendartean indarkeria fisiko eta psikologikoaren biktima diren emakumeak nonbait euren buruak erantzuleztat ikustera bultzatzen dituen (...) erakundeek ez dute ahalegin nahikorik egin emakumeak isiltasunera daramatzen erruduntasun sentipen hori ezabatuko luketen tresnak eraikitzeko (Graziosi, 2008; 303)³⁹.

Azken finean, emakume horiei euren bide propioa egiten uztea izan beharko litzateke helburua.

5.2. 1/2004 LOak galdutako aukera

Legeak botere publikoak eta hiritarrak derrigortzen ditu. Esku-hartze publikoaren abiapuntua lege partziala bada, edo hori nahikoa ez bada, halakoxea izango da esku-hartzea ere, subjektu pasiboen lege-katalogoan barnebiltzen ez diren biktimak babesik gabe utziz. Kasurik mingarrietakoa sexu-erasoak jasan duten emakumeena da; erasoak sarritan inguruko pertsonak eginak dira –lagun edo ezagunek– baina ez derrigorrez bikotekideek eginak. Kasu horietan, emakume horiei ez zaie babes berezi berdina eskaintzen.

Arauketa “paternalismo zigortzaile”tzat jo da biktimen babes posible egiten duelako, horien borondatea eta indarkeriaren nolakotasuna kontuan hartu gabe (indarkeriaren maiztasuna, astuntasuna, etab). Erantzun zigortzaile honek inkontziente kolektiboan du jatorria; gizarteak zehapen gehiago eskatzen du, hori babes hobearekin nahastuz. Eskaerok, tamalez, legegilearen erantzuna izandute.

Egia da orain arteko jarrera ahulegia izan dela, eta agian, eskuzabalegia erasotzaileekin. Horrek ez du esan nahi, halabeharrez, legea egokia ez zenik, akatsa legearen aplikazioan zegoela irizten baitio doktrinaren zati batek. Osoko legea aplikatzerako orduan, zenbait epailek, ezarritakoa gehiegizkotzat jota, legediaren ondoreak leuntzen ahalegindu dira. Jakiteke dago aurreko legedia egungoa baino hobea den ala ez, baina, edozelan ere, erreforma

egin aurretik, akatsa non dagoen aztertu beharko litzateke; legean bertan edo haren aplikazioan. Bi-biak dira ezinbestekoak, lege-teknika ona eta ondoriozko betearazpena.

Egoera bakoitzak trataera bakoiztua behar du. Status ekonomikoa, adina, jatorria edo migrazio-egoera, ezgaitasunak edo egon daitekeen bestelako inguruabarrak kontuan hartu behar dira. Legea malguagoa izan behar da fenomeno bera oso konplexua delako.

Osoko legea erakundeek egindako lehen ahalegin bateratua da, baina egiturazko arazoei heldu gabe zaila izango zaio arrakasta lortzea.

Hiru taldetan sailkatuko nituzke, beraz, galdutako aukerak: batetik, genero-indarkeriaren definizio eta trataera juridikoan NBEak markatu bidea jarraitu ez izana; bestetik, zigor zuzenbidearen erabilera sustatu beharrean, bestelako tresnak erabiltzeko aukera indartu ez izana; eta azkenik, biktimenganako konfiantza handiagoa erakutsi ez izana.

6. Erreformen berrikuntza eta ekarpenik garrantzitsuenak

1999tik 2004. urtera arte, bost urte eskasetan, gutxienez dozena bat lege-ekimen eman ziren genero-indarkeria edota familia-indarkeriaren inguruan, urte gutxi lehenago ZK aldatua izan zela kontuan hartu gabe. Zehatzago, 2003. urtean, prozedura lege eta zigor arloko legeen jarraikako lau erreforma gertatu ziren⁴⁰, uztaila, iraila, urria eta azaroan, hain zuzen ere. 2010. urtean, Zigor Kodearen beste erreforma bat⁴¹ onartu zuen legegileak, sakoneko aldaketak eginez ia arlo guztietan (genero-indarkeria eta familia-indarkeriaren inguruko aldaketak ez dira hain nabariak). Legegilearen gehiegizko azkartasuna eta hausnarketa falta nabariak dira, segurtasun juridikoa eta galdagarri den gutxieneko egonkortasun baten kaltetan.

Erreformak arinegi eta presaka egiteak, gizartea noraezean uzteaz gain, lege-idazkera akasduna ekarri ohi du (kontraesanak, inkoherentziak, hutsuneak, interpretazio eta edukiaren gaineko iluntasunak, etab.).

39. Testuak hauxe dio: “hay algo en la sociedad que hace que las mujeres víctimas de violencia física y también psicológica estén convencidas de ser responsables de algún modo (...) Las instituciones no han puesto el suficiente empeño para construir mecanismos capaces de desalentar ese sentimiento de culpa que lleva al silencio”.

40. Izatez, gaiaren inguruko legedia aldatzea eta sortzea zen estatuaren etxeko-indarkeriaren kontrako osoko planaren helburuetako bat.

41. 5/2010 LO, ekainaren 22koa, 10/1995 LO Zigor Kodea aldatzeko legea da erreforma hori.

Lege-aldaketa hauek gero eta joera zigortzaileagoa jaso dute⁴². Ia erreforma bakoitzeko babes handiagoa “merezi” duten subjektu pasiboen zirkulua handitu egin da (eta ondorioz, zigor astunduak merezi duten portaeren kopurua ere), derrigorrezko bihurtzen dira aurretiaz ahalezkoak ziren zigor erantsiak eta kautela-neurriak, eta oinarrizko zigorrak ere astundu dira.

Jarrera hau zenbait kasutan ulergarri izan daitekeen arren, legegileak ez du behar bezala justifikatzen, batez ere, ez dituelako momentu bakoitzean indarrean dagoen legearen gaineko azterketarik edota zigorrak handitzeko beharrianaren inguruko azterketarik egin⁴³. Honek ez du esan nahi inkriminazio handiagoa egokia ez denik (eta zenbait kasutan egoki izan daiteke) baina argi uzten du inkriminazioa handitzeko modua ez dela zuzena, eta kaltegarri ere izan daitekeela⁴⁴.

Gero eta gehiago zigortzeko joera honekin batera, genero-indarkeriaren biktimak gero eta autonomia gehiago galdu duenaz ohar gaitezke (Laurenzo, 2008; 335 eta 340), botere publikoek biktima bera euren interesetarako erabiltzen dutelarik⁴⁵.

Ikuspegi baikorrago batetik, legegileak antzinako arazo honekin ahalegin berezia eta inbertsio garrantzitsua egitea erabaki duela nabaritu nuke. Hasteko, biktimen babes handiagoa bilatu izan duen legedia onartu da; eta bestetik, epaitegi bereziak sortzeko, laguntza ekonomiko bereziak emateko, kontzientzia zabaltzeko ikastaroak sortzeko, eta abarrerako diru-iturri inportanteak bideratu dira. Ondorioz, eragile juridikoen pentsaeran aldaketa nabariak emango direla pentsatu behar dugu, batez ere abokatu, epaile eta poliziarengan (Graziosi, 2008; 305).

Inbertsio hauen fruituak ez dira, ziur aski, berehalakoak izango, eta fruitu horien zain egongo gara urte luzez. Eraitza horien kantitate eta kalitatea beharrezko lege aldaketak eginez hobetu litezke (indarreango legeen balorazio eta egokitzapenaren bidez).

7. Kautela-neurriak

Prozedura penalean, epai irmoa eman aurretik prozesuaren subjektu pasibo den pertsonaren askatasuna mugatzen duten neurriak har daitezke, konstituzioa eta bestelako prozedura-legeak errespetatu bitartean, bereziki konstituzioak aurreikusten duen errugabetasun printzipioa (KEren 24.2 art). Orain gutxira arte, kautela-neurrien helburua epaiketa egingo zela bermatzea, eta, hala denean, zigorra beteko zela ziurtatzea zen. Helburu horiek mantentzearekin batera, beste helburu bat sortu da genero-indarkeriaren kontrako borrokarekin, biktimaren ondasunak babestea hain zuzen ere, gerora aipatuko dudana bezala.

Zigor arloan kautela-neurriak dira zitazioa, gida baimena baliogabetzea, epaitegira agertzeko betebeharra, hurbiltzeko eta komunikatzeko debekua, bizilekua leku zehatz batzuetan zehazteko ezintasuna edo zenbait lekutara joateko debekua⁴⁶, kargu publikoen etetea, enpresa eta establezimenduen ixtea edota horien jardueren etetea, enbargoa, fidantza, atxiloteta, behin-behineko espetxealdia, behin-behineko askatasuna eta PKLko 544 ter art.ko babes-agindua (azken honek neurri penalak eta zibilak baimentzen dituelarik)⁴⁷.

7.1. Kautela-neurrien ezaugarriak

Kautela-neurriek jarraian aipatuko ditudan bost ezaugarri hauek dituzte:

42. Iritzi berdina du Herrero (2010; 28).

43. Auzitegi Gorenak 2009-5-12ko epaian, zbdoko lehen oinarriko b) V A) letran, antzeko kritika egin zuen.

44. Ados nago Larraurirekin (2008, 1 eta hurrengoak) gizarte sektore zabal batek emakumeak tratatu berezia behar izatearen arrazoiak informazio faltagatik ulertu ez dituela baieztatzen duenean. Horrekin batera eragile juridikoek eraginkortasuna eta neurrien justiziar buruz duten mesfidantza (epaile eta legegileak, batez ere) kontuan hartu behar dugu. Hori dela eta, desabantaila guztiak kontuan hartuta –eta abantailarik ez dagoela ikusita– inkriminazioa handitzeak ez du zentzu gehiegirik. Berez, ikuspegi feminista batetik kaltegarri ere suerta daiteke, emakumeen aldarrikapenei indarra kentzen dielako, batu beharrekoan. Ulertezintasun hori gizartean benetako elkarrizketarik ez egotearekin lotzen dut pertsonalki. Nire iritzian bada genero-indarkeriak sortutako gaitzespen handiagoa (hori frogatzea eta horren gaineko presuntzioak beste kontu bat direlarik). Beraz, bat nator Auzitegi Konstituzionalak 2008. urtean ZK.ko 153. art.ren kontrako lehen konstituzionaltasun helegitean emandako epaiaren zentzuarekin (AKE 59/2008, maiatzaren 14koa).

45. Alde batetik biktimei salaketa jartzea eskatzen zaie baina, aldi berean, ez zaizkie bere gatazkak modu eraikitzailean konpontzeko tresna eta laguntzarik ematen. Bestetik, prozedurak aurrera ez egitearen beldurraren aurrean, salaketa kentzera animatzen ditugu, eta behin salaketa kenduta, salaketa faltsuak tarteratzeagatik edo zigor zuzenbidea euren intereserako erabiltzeagatik errudun jotzen ditugu. Mezu kontraesankor hauen aurrean (eta prozesu psikologiko mingarri baten aurrean) ez da harriztekoa genero-indarkeria sufritu duten emakumeak galduta eta nahastuta sentitzea.

46. Honekin batera, Espainiako lurraldea uzteko debekua ere aipa daiteke (PKLko 765.2 art). Antzeko neurria aurreikusten du lege prozesalak 530. art.an pasaportearen kentzea aurreikustean.

47. Ikus Gimeno (1999; 471-559).

- a) *Tresna funtzioa*⁴⁸. Neurriak prozesu nagusiaren menpe daude, eta ondorioz, prozesua ebatzi bitartean bakarrik egongo dira indarrean, hau da, epai irmoa edo artxibatzea eman artean. Doktrinak “bitartekoaren bitartekoa” edo “instrumentuaren instrumentu” deitu izan ditu. Ezaugarri honek esan nahi du neurria ez dela berezko helburu, gerora berme guztiekin burutu beharreko prozedura bermatzeko egina dagoela, hain zuzen.

Kautela-neurriak azken ebazpenaren arabera dira. Ebazpena kondena-epaia bada, betearazpen neurri bihurtuko da (bai zigor nagusi izaerarekin, bai zigor erantsi edo segurtasun neurri izaerarekin), eta absolbitze-epaia bada edo prozedurari amaiera ematen dion ebazpena (behin-behineko edo behin-behineko artxibatzea) kautela-neurria bertan behera geldituko da.

- b) *Behin-behinekotasuna*. Ezaugarri honek aurrekoarekin harremana dauka, eta kautela-neurriek iraupen mugatua dutela esan nahi du, prozeduraren amaiera-ebazpenak kautela gisa desagerrarazten baititu (bai zehapen bihurtzeagatik, bai desagertzeagatik).

Kautela-neurri batzuk denbora iraupen zehatza dute, eta hori ez dugu behin-behinekotasunarekin nahastu behar (atxiloketaren gehienezko iraupena, adibidez, 72 ordukoa da, eta behin-behineko espetxealdia bi urtekoa, printzipioz. Horiek gainera, geroko ebazpenak euren amaiera erabaki arte behin-behinekoak dira, baina beharrezkoa den denbora bakarrik iraun behar dute).

- c) *Jurisdikzionalitatea*. Epaille edo auzitegiek soilik erabaki dezakete kautela-neurriak ezartzea. Largespenaren kasua salbuetsita, kautela-neurria ezarri duen epaileak ez du gerora prozedura amaituko duen epaia emango.
- d) *Betearazpen neurriekiko homogeneotasuna*. Kautela-neurriek eta

betearazpen neurriek antzeko edukia dute, izaera ezberdina izan arren. Horrek logika handia du kautela-neurriak azkenean har daitezkeen neurrien aurrerapena dela kontuan hartzen badugu, beti ere, azken ebazpena kondena-epaia bada; derrigorrez izan behar dituzte, beraz, antzeko helburu eta ezaugarriak.

- e) *Ezeztagarritasuna*. Kautela-neurria ezartzean zegoen egoera aldatuz gero, neurriak ezeztatze modukoak dira, egoera berriak horiek ahalbidetzen ez baditu edo horiek beharrezkoak ez izatea badakar (arriskua desagertu delako edo prozedura kondena-epaiekin amaitzea gertagaitza delako). Salbuespenez, hartutako neurriak ezeztatu eta neurri hertsakorragoak har daitezke, arrisku berriak ikusita. Arriskutsutasun hau subjektuari delitua egozteko aukerarekin eta frogak baliogabetzeko edo kausa oztopatzeko aukerarekin edota azken zigorraren betetzearekin lotu behar da.

Seigarren ezaugarri baten gaineko eztabaidari buruzko aipamen txiki bat egin nahi nuke hemen, neurrien ofizialtasunaren gainekoa. Arlo zibilean neurriok hartzeko aldean eskaera egon behar du. Zigor arloko kautela-neurri gehienak, ordea, ofizioz ezar daitezke (zitazio, enbargo edo atxiloketa, kasu). Halere, kasu batzuetan, behin-behineko espetxealdia esaterako, akusatzaileen eskaera egonez gero bakarrik ezar daitezke. Prozedura penalean interes orokorra gailentzen da, eta ezarri neurri zehatzak kautela gisa balio duela bermatu behar du estatuak. Beraz, fiskaltzak –estatuaren akusazio organo gisa– kautela-neurria ezartzea eskatu beharko du hori emateko betekizunak betetzen direnean (ofendituaren parte-hartzerik ez dagoen kasuetan ere)⁴⁹, baina epaileari ere horiek ofizioz hartzeko ahalmena aitortu behar zaio⁵⁰.

Kautela-neurriek, gainera, hurrengo betekizun hauek ere bete behar dituzte Auzitegi Konstituzionalaren aburuz⁵¹:

- Legezketasun printzipioa. Neurriak beti izango du oinarritzat kautelak baimenduko dituen legeren bat.

48. Gaztelaniaz ezaugarri honen izena “instrumentalidad” da.

49. Kautela-neurrien ofizialtasunaren inguruan eztabaida handia dago, eta salbuespenak daudela jakinda, Pujadasen iritzia jarraitu dut (2008; 193-194).

50. Hori aitortzen du berariaz PKLko 544 bis art.ak adibidez. Lege bereko 544 ter 2 art.aren arabera, babes-agindua ere ofizioz har daiteke. Sibonyk ere babes-agindua ofizioz har daitekeela defendatzen du (2010; 250 eta 252).

51. Ikus AKE 1988-5-9koa, 88/1988 zbkiduna eta AKE 1995-7-26koa, 128/1995koa. Ikus baita ere Osoko legearen 68. art. eta Ullen iritzia (2005; 423-435). Baita AKE 1996-12-16koa, 207/1996 zbkiduna ere.

- Salbuespen printzipioa. Egotziaren egoera arrunta askatasun-egoera izango da (eta bere eskubide guztien gozamen-egoera), eta beraz, horren eskubideak salbuespenez bakarrik murriztuko dira kautela-neurriak ezarritik.
- Proporzionaltasun printzipioa. Neurriak saihestu nahi den arriskuarekiko proportziozkoa izan behar du, bestela ez lukeelako oinarriko eskubideen murriztea justifikatuko. Neurria egokia izan behar da, beharrezkoa eta dauden alternatibetatik arinena.

7.2. Kautela-neurri motak

Genero-indarkeria edo familia-indarkeria dela eta, prozedura penalean ezar daitezkeen neurriak zibilak eta penalak izan daitezke.

Zigor arloko kautela-neurrien artean errealak eta pertsonalak daude. Neurri pertsonalek egotzi edo erruztatuaren eskubide eta askatasunak murrizten dituzte. Neurri errealak ustezko egileari edo hirugarren bati ezar dakizkioke, erantzule zibil subsidiarioari fidantza edo enbargoa ezartzen zaion kasuetan bezala.

Neurri pertsonalak zitazioa, gida-baimenez gabetzea, kargu publikoen etetea, atxiloketa, behin-behineko askatasuna, epaitegira agertzeko betebeharra eta behin-behineko espetxealdia (komunikatua, inkomunikatua edo arindua) dira. Azken erreformak direla medio, biktimarengana edo bere ingurukoengana hurbiltzeko debekua, pertsona horiekin komunikatzeko debekua eta bizilekua zenbait lekutan ezartzeko edo leku horietara joateko debekua ere ezar daitezke PKLren 544 ter art.ren arabera.

Fidantza eta enbargoa kautela-neurri errealak dira. Genero eta familia-indarkeriarekin lotura gutxi duten bestelako kautela-neurriak ere badaude. Adibidez, enpresa eta lokalei ezar dakizkiekeen kautela-neurriak eta oreka ekologikoa berrezartzeko neurriak –zehazgabeak– ere (ZKko 339 art.an).

Arlo honetan ezar daitezkeen neurri zibilak ondorengo hauek dira: seme-alaben mesedetan elikagai pentsioa ezartzea, familiaren bizilekua egozte, adingabeen zaintza ematea eta zaintza ez duen gurasoaren mesedetan seme-alabekiko bisita eta komunikazio erregimena ezartzea,

eta adingabeak babesteko edo horrek kalteak pairatzea galarazteko beste edozein neurri.

7.3. Zigor arloko kautela-neurriak ezartzeko betekizunak

Kautela-neurri penala ezartzeko bi betekizun eman behar dira:

- Fumus boni iuris.
- Periculum in mora.

7.3.1. Fumus boni iuris⁵²

Delitu bat egin dela edo delitu izaera duen egitea gertatu denaren zantzuak egotea, eta itxuraz, horiek pertsona bati egozteko modukoak izatea suposatzen du.

Itxura horrek azken ebazpenaren edukuari buruzko probabilitate kalkulua dakar –aukera eta susmoa baino haratago, baina ziurtasuna baino gutxiago delarik–. Epaitegiak kautela-neurria ezarriko du azken ebazpena kondena-epaia izatea espero badu.

Zantzia sinesgarria izan behar da, eta froga baliotik hurbil egon behar du. Izan daiteke kautela-neurria ezartzea erabaki duen epaitegiak egindako kalkulua gerora ezeztatua suertatzea, eta horregatik kalkulua hipotetikotzat jotzen da.

Orokorrean, datu gutxi egon ohi da prozeduraren momentu honetan, kautela-neurria ezarri arteko izapideak oso arinak (eta gutxi batzuk) direlako. Genero-indarkeria kasu gehienetan polizia-atestatua eta biktimaren aitortza heldu ohi dira epaitegira, eta bertan biktimari bigarren aitortza hartu ostean, egotzia entzun ohi da PKLko 544 ter art.ko agerraldia egin aurretik.

7.3.2. Periculum in mora⁵³

Egotzia prozeduraren garapenean zehar agertzeko aukera eta pertsona horrek ezarri zigorra betetzeko aukera baloratu behar dira.

Prozeduraren luzapenak geroko zigorraren ordainketa zaildu dezake, eta horregatik, epaileak egotziak ikerketa ez oztopatzea eta zigorraren

52. Gerora, betekizun honen inguruko informazio gehiago emango dut 8.2.1. Kriminaltasun zantzu oinarriaren buruzko atalean, 19. orrialdean.
53. Informazio gehiago 8.2.2. Arrisku egoera objektiboari buruzko atalean, 19-20. orrialdeetan.

betearazpena ziurtatuko ditu, epaiketa fasea heldu bitartean frogak ezereztu ditzaketen borondatezko egintzak edo gertakari naturalak saihestuz.

Kautela-neurria ezartzeko ez da nahikoa prozedura luzatuko dela jakitea, eta beharrezkoa izango da, esku hartu ezean, kalte hipotetikoa kalte erreal bilakatuko denaren susmoa.

Etorkizuneko kaltearen mehatxua sinesgarria izan behar da horren aurrean prebentzio gisa kautela-neurria hartu ahal izateko. Mehatxatutako kalteak konponezinak izan behar dira.

Zitazioaren kasua kenduta (horren helburua aitortzaren bidez egitateak argitzea baino ez baita), atxiloketa, behin-behineko espetxealdia eta babes-aginduaren kasuan lau arrisku ekidin nahi izan dira; delitu berriak egitea, ikerketa oztopatzea, prozedura saihestea eta errudunari ezar dakioken zigorra ez betetzea.

Kontuan hartu behar da neurri hauek harteak kostu pertsonal handiak dituela, eta egotzi edo erruztatuaren oinarritzko eskubideak ere muga ditzakeela, besteak beste, EKren 17. art.ko mugitzeko askatasuna, eta horregatik, neurrien ezarpena salbuespenekoa izan behar da. Azken epaia absolbitze-epaia izanez gero, erruztatuari ordura arte kautela-neurriekin eragindako kalte konpentsatzea ez da posible, kalte-ordainak berak ere ez baitu bidegabekeria desagerrarazten (are gutxiago behin-behineko espetxealdiaren kasuan).

8. PKLko 544 ter art.ko babes-agindua⁵⁴

PKLko 544 ter art.ko lehen atala ekarri behar dugu abiapuntua ezagutzeko. Lehen atalak hauxe dio:

Instrukzio-epaileak etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua emango du, Zigor Kodearen 173.2 artikuluan aipatu pertsonetatik baten bizitzaren, osotasun fisiko edo moralaren, sexu-askatasunaren, edo askatasun nahiz segurtasunaren aurkako delitua edo faltaren zantzu oinarritunak badaude, baldin eta biktimarentzat arrisku-egoera objektiboa agertzeagatik artikulua honetan araututako babes-neurriren bat hartzea beharrezkoa bada.

Artikulu berdineko 5. atalak zera zehazten du:

Babes-aginduak babes osoko estatutua ematen dio 1. paragrafoan adierazitako egitateen biktimari; estatutu horren barne egongo dira artikulua honetan ezarritako kautela-neurriak, ordena zibilekoak nahiz ordena penalekoak, eta antolamendu juridikoan ezarritako beste neurriak ere, laguntza-neurriak bezala gizarte-babeserakoak.

Artikuluaren 8. atalean lehengo aurreikuspen hori zabaltzen da, eta babes-neurriak segurtasunari buruzkoak, gizarte-laguntzari, laguntza juridikoari, edo laguntza psikologikoari buruzkoak, nahiz beste edozein motatakoak izan daitezkeela onartzen du.

Laburbilduz, babes-aginduak ematen duen estatutua familia barneko indarkeria edo genero-indarkeria pairatzen duten pertsonen ematen zaien tresna zabal eta premiazkoa da. Zabala, askotariko neurriak aurreikusten dituelako. Premiazkoa edo arina, PKLko 544ter 4 art.ren arabera, eskaera egin eta, beranduenez, hurrengo 72 orduren buruan ospatu beharko delako agerraldia, agindua emanez edo hori ukatuz.

8.1. Babes-aginduko neurrien izaera juridikoa

PKLko 544. ter art.ak jasotzen dituen neurriak kautela-neurritzat jo dira. Autore batzuk, ordea, Gimeno Sendrak esaterako, behin-behineko neurritzat edo neurri aurreratutzat jo ditu (Gimeno, 1999; 540).

Lehen esan bezala, babes-agindua kautela-neurri berezia da, bere helbururik garrantzitsuena ez delako frogan deuseztatzea edo erruztatuaren ihesaldia ekiditea, baizik eta biktimaren babesa bermatzea.

Azken lege-erreformek neurrien izaera ilundu dute. 1/2004 LOak, "Biktimen babes eta segurtasun neurri-judizialei buruzko" IV. kapituluan, segurtasun neurriak aipatzen dituelako, eta ondorengo artikuluetan ere, bereziki 61. art.an, hauxe irakur daitekeelako:

1. Kapitulu honetan aurreikusi babes eta segurtasun neurriak zigor arloan eta arlo zibilean har daitezkeen edozein kautela-neurri eta aseguratze-neurriekin bateragarriak izango dira.

Literalki interpretatuz gero, aurreikusi neurriak kautela-neurriak ez direla eta segurtasun neurriak direla ematen du. Interpretazio hori, ordea, baztertu behar dugu⁵⁵ legegileak argi utzi

54. Babes-aginduari buruzko azterketa laburtua izateko, ikus López (2010; 758-762).

55. Hori defendatu du estatuko fiskaltzak ere 4/2005 zirkularrean, 110-111 orrialdeetan.

baitzuen hori ez zela bere helburua, eta beraz, helburu teleologikoa gailenduko da kasu honetan.

Hein baten, babes-agindua segurtasun neurritzat jo ez izana tamalgarria da, segurtasun neurriak babes-aginduko kautela-neurriak baino askoz ere malguagoak baitira, eta malgutasuna genero-indarkeria arrakastaz borrokatzeko ezinbestekoa dela uste baitut. Bi horien izaera nahastea ezinezkoa da nonbait.

Oso-osoko estatutuak edo babes-aginduak izaera deskribagaitza eta zehaztugabea du pilatu dituen neurri multzoa eta horien izaera ezberdina kontuan hartzen badugu. Edozelan ere, argi dago estatutua behin-behinekoa dela, eta neurriak kautelazkoak. Autore guztiak, ordea, ez daude ados neurrien izaeraren inguruan eta zenbaitzuk esan dute horiek ezin direla bete-betean kautela-neurritzat, segurtasun neurritzat, zigortzat edo bestelakotzat jo, eta salbuespeneko babes-tresnatzat hartu behar direla (Gómez, 2007; 216).

8.2. Babes-agindua ezartzeko betekizunak

8.2.1. Kriminaltasun zantzu oinarridunak

Pertsona baten kontrako zantzuak egotea fumus boni iuris betekizunarekin pareka daiteke. Kautela-neurria ezarri ahal izateko subjektu zehatzaren kontrako arrazoizko zantzu kriminalak egon behar dira.

Zigor arloan, autore batzuk, fumus boni iuris betekizunaren ordeztu "fumus mali iuris" edo "fumus commisi delicti" esamoldea proposatu dute gerta daitezkeen nahasmenduak ekiditeko (Arangüena, 1991; 47-48).

Zantzu edo aztarna horiek zuzeneko arrazoiaren arauen arabera aztertuta, eta osoko frogak ematen duten segurtasuna eman gabe, egotziaren erantzukizuna ikustea edo asmatzea ahalbidetzen dutenak dira.

Arrazoizkoak izango dira arbitrarioak edo nahierarakoak ez direnak eta juicio logiko eta serio baten oinarri dutenak, partzialtasunetik, ezegokitasunetik eta pasiotik urrunduak.

Zantzuak pertsona fisiko bati lotu behar zaizkio baldintza hori bete ahal izateko, horren parte hartzea edozein izanda ere (egile, sopikun edo estaltzailea)⁵⁶.

Prozesuaren fase honetan, ustezko egileak paira ditzakeen egotzezintasunezko kausak ere baloratu behar izango dira (ZKko 20.1, 20.2 eta 20.3 art.ak), nahiz eta horiek gehienetan epaiketara arte ez diren frogatutzat joko. Aldi berean, aipatu egoera horiek PKLko 637.3. art.-ko artxibatzea ekar dezakete, egozgarritasun ezagatik⁵⁷.

Beharrezko egoera edo beldur gaindiezina (ZKko 20.5 eta 20.6 art.ak) epaiketa fasean bakarrik aztertuko dira, eta beraz, ez dute kautela-neurriaren ezartzea eragotziko.

8.2.2. Arrisku-egoera objektiboa

Babes-agindua "periculum in mora" betekizuna bete beharrekoan "periculum in damnun" (delitua berriro gertatzeko arriskua) betetzen duela esan izan da, arlo zibileko kautela-neurrien antza hartuz.

Arrisku-egoera objektiboa⁵⁸ egon behar da. Segurtasun neurriekin gertatzen den bezala, beharrezkoa da etorkizuneko iragarpena egitea egotziak krimen berriak egiteko duen probabilitateen inguruan.

Ahalik eta modu objektiboenean baloratu behar dira egitateen larritasuna eta horiek errepikatzearen arriskua. Doktrinak zenbait irizpide eman ditu horiek baloratzeko.

Hasteko, instrukzioan dauden datuak aztertuko dira, horiek etorkizunerako arrisku gehiago ala gutxiago erakusten duten ikusteko; kontuan hartu daitezke, adibidez, armen erabilera edota erasoaren basakeria, indarkeria aurrekariak eta zigor aurrekariak. Faktore hauek esperientziak eta logikak ematen dizkiguten datuekin osatu behar dira, atera ondorioak erlatibizatu eta bidezkoak ez diren egoerak ekiditeko⁵⁹.

Labur azalduz, epaileak, ezarriko duen neurria, eragotzi nahi den arriskuarekiko

56. Estaltzailea ez da egun parte hartzaile mota bat kontsideratzen, baizik eta ZKko delitu berezi gisa (451 art.a eta hurrengoak) baina bere ezaugarriak direla eta, honi ere aplikagarri zaiola ematen du.

57. Gai honetan sakontzeko, ikus Arangüena (1991; 164-181).

58. Gaztelaniaz SOR laburdurarekin ezaguna dena, "Situación Objetiva de Riesgo" adierazteko.

59. Demagun gizonezko batek arrazoi sexistengatik hil duela bere emaztea. Pertsona horrek ez du, ziur aski, berehala bestelako deliturik egingo, hau da, ez dago delitu berriren arriskurik. Halere, zuzenbidearen ikuspegitik zentzuzkoa da pertsona horri kautela-neurria ezartzea justiziaren ekimena saihestu ez dezan. Beste kasu batzuetan, erasoaren larritasuna txikiagoa izan arren, kautela-neurria ezartzea ezinbestekoa izan daiteke. Demagun aurreko gizon horrek emaztea hiltzeko ahalegina egin baina ez duela lortu. Berriro saiartzeko aukera handiagoa da eta horren arriskua ere bai.

proportziozkoa izatea ziurtatzeko elementuak izan behar ditu, bestela, konstituzio eskubideen murrizketa justifikatu gabea izango delako. Proportzionaltasunak zera suposatzen behar du; egokia, beharrezkoa eta ezar daitezkeen neurrietatik arinena izan behar duela. Neurriaren ezarpena jasotzen duen ebazpenak, gainera, hori arrazoitu beharko du defentsa-gabezia ekiditeko. Proportziozkoa izan beharko dira neurriaren aplikazio, iraupen, luzera eta betearazpen bera ere.

Kautela-neurria urgentziaz ezartzen da, ahalik eta denbora laburrenean emanez edo ukatuz. Hori azkenean egokia izan den ala ez epaiketa garaian aztertuko da.

8.3. Babes-aginduaren neurri penal nagusiak

PKLko 544 ter art.ko 6. atalean aurreikusiko neurriak edo bertan definitzen diren hauek har daitezke: “prozedura kriminaleko legedian aurreikusitako edozein”. Neurri guztiak edo horietako batzuk ezar daitezke. Ahobatekotasuna dago horien artean ondokoak zerrendatzean:

- Zenbait lekutara joateko debekua.
- Epailleak zehaztu lekuetan bizilekua ezartzeko debekua.
- Biktimarengana edo zehaztu pertsonarengana hurbiltzeko debekua.
- Horiekin komunikatzeko debekua⁶⁰.

Azken biak garatuko ditut.

a) Hurbiltzeko debekua. 1/2004 LOaren 64.3 eta 64.4 art.ak.

Hurbiltzeko debekua ZKko 48. artikuluan azalduta dago, eskubideez gabetzen duten zigorrakin batera. PKLak 544 bis art.an ere neurri hau aitortzen du familia eta genero-indarkeria kasuez kanpoko neurri gisa.

Erasotzaileari biktimarengana, horren lantokira edo ohikotasunez joaten den lekuetara⁶¹ joatea debeka dakioke. Agindu hori jarraituz, egotzi zein erruztatutako derrigorrez biktimarekiko epailleak zehaztutako distantzia mantendu

beharko du, biktima dagoen lekua edozein izanda ere, hau da, biktimaren alde “segurtasun perimetroa” ezartzen da (Gómez, 2007; 226).

Auzitegiek ezartzen duten distantzia kasuan kasu aldatzen da, eta horretarako, zenbait irizpide hartuko dira kontuan, hala nola, erasotzailearen bizileku berria, bi-bien lantokia eta etorkizunean gerta daitezkeen egitateen ustezko larritasuna.

Legeak debekuaren betetzea bitarteko elektronikoen bidez egitea ahalbidetzen du. Bitarteko horien erabilpena gizonezkoaren oniritziarekin bakarrik egin daiteke⁶². Horrelako tramankuluek arazoak ekar ditzakete borondatezkoak ez diren hurbiltzeak (edota erasotzaile eta biktimarentzat ezezagunak diren hurbiltzeak ere) hurbiltze zigorgarri gisa kalifikatzen dituelako.

Bizkaian, indarkeri kasurik larrienetan Ertzaintzak biktima momentu oro laguntzen du erasotzailearen hurbiltzea saihesteko. Hori biktimaren intimitatearen kaltetan izan arren, eraginkorragoa izan ohi da.

Babes-agindua egonda ere, erasotzaileak seme-alabekin harremanak izateko eskubidea mantentzen badu (eta horrela izaten da kasurik gehienetan), bisitak biktimarena ez den beste bizilekuren baten egin behar dira, eta adingabeak eman eta hartzeko beste pertsonaren bat izendatu behar da.

Hurbiltzeko debekuak arazo ugari ekarri ditu bikotekideek zigor prozedura amaitu baino lehen elkarbizitza berriro hastea erabaki dutenean (sarritan biktimak salaketan “atzera egin” eta gero). Babes-agindua ezarri bada, elkarbizitza ZKko 468. art.ko neurri urratze delitutzat jo ohi da.

Auzitegi Gorenak 2005. urtean emandako epai baten (AGE 05-9-26) esan zuen babes-aginduaren balioa, zigorrak izaera publikoa duen heinean, ezin dela kondenatuaren edo biktimaren borondatearen arabera izan; baina hurbiltzeko debekua, kautela-neurri gisa ezartzen bada, eta bikotekideek elkarbizitza hasi badute, debekua bertan behera utzi dela ulertzea posible dela, eta kasu horietan erruztatua ez dela ZKko 468. art.ko delitu

60 Lau neurri hauek PKLko 544 bis art.ak ere aitortzen ditu, 57. art.an aipatu delituak gertatzen diren kasuetarako.

61. Bere etxebizitza edo bi-bion etxebizitza zena holako lekutzat joko da, baina baita beste edozein leku ere (umeen eskola, inguruko denda eta tabernak, etab).

62. Baliabide elektronikoak ezarri ahal izateko legeak kasu larria izatea ez galdatzea kritikatzuz, erruztatutaren izen ona, intimitatea eta ohorea eragin ditzakeelako, ikus Sibony (2010; 277).

egiletzat jo behar, ezta biktima delitu horren beharrezko laguntzailatzat edo indutzizailatzat hartu. Orduko ebazpenaren arabera, horrelako egoeratan, bikoteak elkarrekin bizitzeko duen eskubideak zuen lehentasuna.

Gerora, ordea, AGak ez du iritzi hori mantendu eta 2008. urteko osoko bilkura batean (2008-11-25ekoa) adierazi zuen andrazkoaren adostasunak ez duela ZKko 468. art.ko ondoreetarako zigorgarritasuna baztertzen. Ikusteko dago adierazpen horren ibilbidea.

Hurbiltzeko debekua erasotzaileari zenbait lekutara joateko debekua edo bizilekua zenbait lekutan ezartzeko debekua barnera dezake, nahiz eta legeak, printzipioz, horiek neurri ezberdintzat jo dituen.

b) Komunikatzeko debekua. 1/2004 LOaren 64.5 art.

Aldeen arteko komunikazioa debekatzen du, hori telefono bidezkoa, idatzizkoa, telegrafikoa, ahozkoa, internet bidezkoa, keinu bidezkoa edo bestelakoa izan.

Komunikazio honek biktima eta erasotzailearen ondorengoak direla eta, horiek eduki dezaketen komunikazioa zaildu egingo du, eta hori, agindua ezartzen den unetik, abokatu edo senitartekoen bidez egin beharko da (sarritan bisitak administrazioaren familia-topaguneetan egiten dira).

8.4. Izaera zehaztugabeko beste neurri batzuk

1/2004 LOaren arabera honako neurri hauek ere ezar daitezke:

1. Biktimaren intimitatearen babesa.
2. Erasotzailea bizilekutik ateratzeko agindua (eta biktimaren bizilekuaren permuta).
3. Armak eduki, eraman eta erabiltzeko eskubidearen etetea.

1. Biktimaren intimitatearen babesa. 1/2004 LOaren 63 art.

Legeak biktimaren, horren ondorengo edo bere zaintza edo harrerapeko pertsonen

datuak sekretupean izateko aukera aurreikusi du. Gehienetan, lantokiari buruzko datuak (hori berria edo ezezaguna bada), kontaktu moduak (telefono berrien zenbakia) eta bizilekuaren kokaleku berria, horrelakorik badago, izango dira babestu beharrekoak.

Gainera, ahozko epaiketa ate itxiz egitea eta izapideak sekretuak izatea onartzen da.

2. Bizilekutik ateratzeko agindua. 1/2004 LOaren 64.1 eta 64.2. art.ak.

Genero-indarkeria kasuetan, egotzi edo erruztatuari etxebizitza uzteko agindua eta bertara bueltatzeko debekua ezar dakiok, eta beraz, zigor arloko neurritzat hartzen da. Agindu eta debekua bikoteak erabili izan duen bizilekuari edo familiak izan duen bizilekuari egiten dio erreferentzia, horrelakorik egon bada.

Aipatu neurria erabilgarria izan zitekeen hurbiltzeko debekurik ezarri ez den kasuetarako, horrelakorik balego, neurri leunago gisa. Praktikan hurbiltzeko debekua izaten da gehien ezartzen den neurria, eta beraz, neurri horrek elkarbizitzarako ezintasuna suposatzen du.

Salbuespenez, biktimaren jabetzakoa den etxebizitzaren permuta baimendu dezake epaileak, horren trukean bizileku babestua alokairuan emanez. Aurreikuspen hori, interesgarria izan arren, ez dirudi oso eraginkorra, ematen duen aukera bakarra biktimaren etxea alokatzea baita, eta horretarako, ez baitaio beharrezkoa artikuluak aipatzen dituen agentzia eta erakunde publikoen laguntza (bestalde, horien laguntza norainokoa den aztertu beharko litzateke)⁶³.

3. Armak eduki, eraman eta erabiltzeko eskubidea etetea. 1/2004 LOaren 67. art.

Neurri honek izaera penala du. Artikuluak ezarri duen bezala, ezin izango ditu armak eduki, horiek eraman edo erabili (horretarako baimena izan zein ez).

Salatuak arma baimenik badu, hori kenduko zaio eta armak ezarri lekuetan entregatu beharko ditu (gehienetan poliziaren bulegoetan).

Neurri egokia den arren, horrek ez du guztiz ezabatzen emakumearen kontra armak erabiltzeko aukera.

63. Orain arte ez dut nire eguneroko jardunean horrelako neurriren ezarpenik ezagutu.

8.5. Babes-agindua ezartzeko modua⁶⁴

Babes-aginduaren eskaera jasotakoan, hori ezartzeko entzunaldia egingo da, eta bertara aurkeztu beharko dira egotzia eta horren abokatua⁶⁵, fiskaltza, epailea eta epaitegiko funtzionarioa, gutxienez. Biktimaren ordezkari gisa, haren abokatua ere ager daiteke –akusazio partikularren papera eginez–, eta baita agindua eskatu duen pertsona (PKLko 544 ter 4 art). Detaile hauek aipatzea zentzugabea irudi dezake, baina kontuan hartu behar dugu halakoetan biktimak alde aurretik egin beharko duen aitortza, gutxienez bost pertsonen aurrean egingo duela⁶⁶, eta zuzenbide aditu horien aurrean bere egoera pertsonala kontatu beharko du⁶⁷. Aditu horiek ez daude beti nahi genukeen bezain sentsibilizatuak, eta biktimak sarritan oso pasadizo umiliagarriak kontatu behar ditu.

Entzunaldia edo agerraldia ezin da egotziaren presentziarik gabe egin, salbuespen egoeretan izan ezik⁶⁸. Doktrinaren arabera salbuespeneko egoera hori emango da honako baldintzak ematen direnean:

1. Arrisku erreal, berehalako eta larri bat badago, eta emakumezkoak babes eraginkorra atzerapenik gabe behar badu.
2. Egotziak gerora horren aurka egiteko aukera badu, geroko entzunaldi baten bidez, berak esan beharrekoa entzuteko aukera emango zaiolarik.
3. Horrez gain, neurria ezartzea erabaki duen jatorrizko ebazpenaren aurka errekurtsoa ezartzeko eskubidea ematen bada.

Agerraldian kontraesateko printzipioa eta hurrentasun printzipioak nagusitu beharko dira.

Agerraldia egiteko eskumena emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako epaitegiek izango dute, arau orokor gisa, barruti judicial eskumendunean horrelakorik badago, nahiz eta

gau eta eguneko epaitegiek ere kautela-neurria ezar dezaketen zenbait kasutan⁶⁹.

Agerraldiaren ostean, epaitegiak arrazoitutako autoa emango du, babesa ezarriz edo hura ukatuz.

8.6. Babes-aginduaren iraupena

Babes-aginduak biktima babesteko behar-beharrezkoa den denbora bakarrik iraungo du. Praktikan, epe hori babes agindua ezarri eta epaiketa egin arte edo epaia eman arte luzatzen da gehienetan. 1/2004 LOaren 69. art.k neurria indarrean irautea aurreikusten du lehen epaia eman eta errekurtsoak ebatzi bitartean. Beraz, luzera zehaztugabekoa, kasuan kasukoa eta jurisdikzio organoen araberkoa da (nahiz eta epaitegiek genero-indarkeriako kasuak lehentasunezko prozeduratzat jo).

Iraupena ezin da behin-behineko espetxealdiaren iraupena baino luzeago edo epaiketan ezar daitekeen delituaren zigorra edo segurtasun neurria baino luzeagoa izan. Zehaztugabetasun honen aurrean, egokia dirudi horien iraupena mugatzea, aurreikusi beharreko epe horiek zenbait egoeratan luzatzeko modukoak bihurtu arren. Mugagabetasunak neurria proportziorik gabea bihurtu dezake⁷⁰.

Ezarri neurriak absolbitze-epaia edo artxibatzea emanez gero (PKLko 637 edo 641 art.-koak) baliogabetu egingo dira. Kondena-epaia emanez gero, kautela-neurri gisa emandako denbora zigorra denborari txikituko zaio.

8.7. Babes-agindua eskatzeko legitimazioa

Biktimak legitimazio orokorra izango du. Babes-agindua eskatu ahal izango dute fiskaltzak eta biktimaren legezko ordezkariak. 1/2004 LOren 61.2. art.ren arabera, biktimarekin bizi diren pertsonak edo horren zaintza edo harrerapean

64. Prozedura zehaztasunez azaltzen du Díazek (2009, 344-348), genero-indarkeria eta familia-indarkeriaren kasuak ezberdinduz.

65. Legeak egotziaren abokatuaren presentzia ez du derrigorrezkotzat jotzen, testualki behintzat "(...) eta erasotzailea, hala denean, azken hori abokatuaren laguntzarekin" joango dela esaten baitu. Praktikan, ustezko erasotzailearen presentzia beharrezkotzat jo da. Iritzi bera du Sibonyk (2010, 253).

66. Aitortzarik egiten badu, batzuetan PKLko 416 art.an xedatutakoa kontuan hartuta ez baitu hori egiteko betebeharririk izango. PKLko 416. art.ak, testu bereko 730 art.rekin (izapidetzak epaiketan erreproduzitzeko aukera) eta 714 art.ekin (kontraesanak argitzeko) batera desadostasun asko eragin dituzte prozesua baldintzatzeko erabateko gaitasuna dutelako. Ez da posible horiek hemen argitzea, baina Díazek zenbait arazo aipatzen ditu (2009, 341-342). Bost pertsona horiek gehiago ere izan daitezke, itzultzailea edota senitartekoak badaude.

67. Egia da, erasotzaileak ere egoera berdinari aurre egin beharko diola, baina egoera, edozein kasutan ere, ezberdina izango da.

68. AKE 2005-4-4koa, 70/2005 zbkiduna.

69. Ikus BJLOren 87., 87 bis eta 87 ter art. eta hurrengoak eta 1/2004ko LOaren 43. art.

70. Kontuan hartuta ZKan dagoen kautela-neurriak larrienak ere, behin-behineko espetxealdiak, baduela denbora muga bat, gehien jota bi urtekoa, hori beste bi urtez luza daitekeelarik, PKLko 504.2. art. ren arabera.

daudenek ere legitimazioa izango dute, eta baita administrazioak berak ere (Gómez, 2007; 219).

PKL, bere aldetik, zorrotzagoa da, eta neurri zibil eta penalen eskaera biktimaren esku edo horren legezko ordezkariaren esku uzten du, eta neurri penalei dagokionez, fiskaltza ahalbidetzen du, hari utziz neurri zibilen eskaera adingabeak edo babesgabeak dauden kasuetarako bakarrik (PKLko 544 ter 7 art). Baina, PKLko 544 ter artikuluko 2. eta 4. ataletan legitimazioa zabaltzen da, eta kautela-neurrien eskaera egiteko legitimazioa biktimarekin ZKko 173.2 art.an aipatzen diren harremanetako bat duen pertsoneri ere ematen die. Zenbait sektore feministek aurreikuspen hori kritikatu dute, hori emakumeari boterea kentzeko modua dela aitortuta (biktimari babes-agindua eskatzen den ala ez erabakitzea ere ez baitzaio uzten).

1/2004 LOren 61.2 art.ren arabera, babes-agindua epaileak berak ere ofizioz ezar dezake, horretarako baldintzak ematen badira eta biktimaren iritzia edozein izanda⁷¹.

8.8. Babes-agindua ez betetzea

Prozesu legeko 544 bis art.ren azken paragrafoak agerraldi bat aurreikusi du kautela-neurria betetzen ez den kasuetarako. Agerraldian neurri hertsakorragoak hartu ahal izango dira, bai babes-aginduaren zorrotzea, bai PKLren 502-504 art.etako behin-behineko espetxealdia. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo erruztatuak babes-agindua ezarri zuen autoa ez betetzeagatik izan dezakeen erantzukizunari, erantzukizuna, gehienetan, ZKko 468. art.ko tipoa betetzeagatik izango delarik.

8.9. Babes-agindua amaitzea

Zigor zuzenbideari dagokionez, babes-agindua osatu duten neurriak zigor erantsi bihurtzen dira prozedura kondena-epai batekin amaitzen bada. ZKko 48 eta 57 art.tan bilduta dauden hurbiltzeko debekuaz eta komunikatzeko debekuaz ari naiz.

Emakumearen kontrako indarkeria-delituren bat burutzeagatik kondena-epaia ematen bada, ZKko 57. art.ak derrigorrezko zigor erantsi gisa ezartzen du testu bereko 48.2. art.ko hurbiltze debekua biktima 173.2. art.ak

zerrendatutakoren bat denean. Zigor erantsi hori ezartzea derrigorrezkoa da⁷². Zigor erantsiak oinarrizko zigorrak baino luzera handiagoa izan behar du ezinbestean (ZKko 57.1 art.ko iraupena izango duelarik, ezarri zigorraren neurriaren arabera).

Zigor honen ezarpena modu malguago batean egin beharko litzateke, hori ezarri egokia edo beharrezkoa den kasuetan bakarrik (gutxienez, biktimarentzat kaltegarria ez den kasuetan). Zigor hauek ez dira zigor nagusiak, zigor erantsiak baizik, eta horien helburua biktima babestea izan beharko litzateke, horrek hori eskatzen badu (Larrauri, 2005; 176). Ondorioz, zigor horren gaineko nolabaiteko xedagarritasuna izan beharko luke andrazkoak, zigor nagusiarekin gertatzen ez den bezala. Ados nago iritzi horrekin.

9. Babes-agindua ezartzea ahalbidetzen duten delitu eta faltak

9.1. PKLko delitu eta faltan zerrenda

PKLko 544 ter art.ak familia indarkeriaren biktimak babesteko babes-agindua ematea ahalbidetzen du. Hau da,

Instrukzio-epaileak etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua emango du, Zigor Kodearen 173.2 artikuluan aipatu pertsonetatik baten bizitzaren, osotasun fisiko edo moralaren, sexu-askatasunaren, edo askatasun nahiz segurtasunaren aurkako delitua edo faltaren zantzu oinarridunak badaude, baldin eta biktimarentzat arrisku-egoera objektiboa agertzeagatik artikuluko honetan araututako babes-neurriren bat hartzea beharrezkoa bada.

Beraz, arrisku-egoera objektiboaz gain eta delitu edo falta zehatz batzuen burutzea gertatu denaren zantzuez gain, beste bi betekizun ere gertatu behar dira. Lehenengo eta behin, jakin beharra dago babesa lortu dezaketean biktimak ez direla bakarrik emakumezkoak, familia barruko bortizkeriaren biktimek ere babesa lor dezaketelako, ZKko 173.2 art.an zerrendatutako pertsonak badira. Bigarren baldintza da babesa merezi duen egoerak, artikuluko aipatzen dituen bizitzaren kontrako, osotasunaren kontrako, askatasuna edo segurtasunaren kontrako delituen itxura izan behar duela.

71 Biktimaren iritzia entzun bai, baina horren borondatea jarraitu behar duenik ukatzen du Díazek, nahiz eta borondate hori babestea komenigarritzat jo (2009, 339).

72. Zigor kodeak "Orduan, beti erabakiko da 48. artikuluko 2. paragrafoan zigorra ezartzea" esaten du.

Definizio honetan sar daitezkeen delituak honako hauek dira:

Bizitzaren kontrako delituak, ZKko 138 eta 139. art.ak⁷³. Buruaz beste egiteko delituen ondasun juridikoa bizitza da (kodeko 143. art). Ez du ematen bikotekideak edo bikotekide izandakoak biktima bere buruaz beste egitera indultzatzen duenean babes-agindua emateko arazorik egon beharko litzatekeenik, biktimak hori egitea lortu ez badu.

Abortu delituetan babes-agindua ematerik dagoen ala ez eztabaida daiteke, doktrina nagusiaren arabera bizitza ez baita sortzen erditze unera arte⁷⁴. Beraz, ez da emakumearen bizitzaren kontrako delitutzat hartzen. Halere, emakumearen osotasun fisiko edo ongizatea ere arriskuan daudela mantenduz gero, hau da, ondasun juridikotzat hartuz gero, babes-agindua ezartzeko aukera legoke.

Osotasun fisikoaren kontrako delituei dagokienez, lesio delituen kasuan ezar daitezke kautela-neurriak (ZKren 147-151 artikulua). Giza hilketarekin gertatzen zen bezala, zuhurtzigabekeriazko lesioetan ez litzateke babes-agindurik ezarri behar, arrisku egoera objektiborik ematen ez delako (ez dago egitateak errepikatuko diren susmorik).

153. art.ko urripen fisikoa edo lesioak eragiteagatik, zalantzarik gabe, babesa ezar daiteke.

Titulu berdinen barruan dauden 154 art. (liskarra) eta 156. art.ko delituek (organoen birlandatzea), horien idazkeragatik, ez dute babes-agindua ahalbidetuko.

ZKko 155. art.ko delituan, ez da arrisku egoera objektiborik gertatuko lesioak legeak aipatu baldintzetan onartuak izan badira.

Kautela-neurriak ezar daitezke 163. art.ko legearen kontrako atxilotze kasuan eta 164. art.ko bahiketa kasuan. Baita ere 165. art.ko delituaren kasuan egilearen bikotekidea den subjektu pasiboa adingabea edo ezgaia bada edo subjektu

aktiboak agintaritzat edo funtzio publikoa dela itxura egin badu.

Babes-agindua ematea ez da posible izango 166. art.ko delitua burutzen den kasuetan, horietan biktimaren kokalekua ezagutzen ez denez, ezinezkoa izango delako pertsona horren benetako babes beharra ezagutzea, eta are gutxiago, non dagoen jakin gabe modu eraginkorrean babes hori ematea.

ZKko 167 art.ak agintaritzak edo funtzionario publikoak pertsona bat askatasunez gabetu badu askatasunez gabetua babestea onartzen du. Ez du ematen babes-agindua sarri emango denik artikulua hau oinarri hartuta.

Mehatxu delituek (ZKko 169 eta 171. art. ak)⁷⁵, derrigortze delituek (172. art.) eta osotasun moralaren kontrako delituek (ZKko 173. art.ak)⁷⁶ babes-agindua ezartzea baimentzen dute.

Tortura kasuan (ZKko 174-177. art.ak) babes-agindua ematea oso kasu arraroetan bakarrik gerta daitekeela dirudi.

Printzipioz ez dago arazorik babes-agindua ezartzeko sexu-eraso, sexu-abusu eta sexu-jazarpen kasuetan, eta baita erakuts-zalekeria, sexu-zirikatzeko delitu eta adingabeen prostituzio eta usteltzeari buruzko delituetan ere (178-180, 181-183, 184, 185-186, 187-189. art.ak).

Subjektu aktiboak ZKko 195 eta 196. art.-etako ez soroste delituen bat burutu badu, kasu gutxi batzuetan biktima babesteko beharra egon daitekeela ondoriozta dezakegu, laguntza hori dolo ukatu badio erasotzaileak, eta egoera hori edo antzekoa errepika daitekeela pentsa badaiteke⁷⁷. Ez da ohiko kasua eta legegilearen borondatea, ziur aski, holakoetan babesa ukatzea izan ez den arren, zalantzakoa dirudi babes-agindua eman beharko litzatekeen, ez bada horiek PKLak aipatzen dituen pertsonen segurtasunaren kontrako delitu/falta gisa hartzen.

Ohorea eta intimitatearen kontrako delituek (ZKko 208 edo 202. art.) ez lukete

73. Zuhurtzigabekeriazko giza hilketan babes aginduak ez du zentzurik. Gainera, kontuan hartu behar da giza hilketa edo eraiketa horiek saiatuak izan behar direla, burutuak izanez gero, zaila izango baita babes beharra duen inor egotea (seme-alabak edo antzekoak ez badira). Kasu horietan behin-behineko espetxealdia ezartzeak logikoagoa dirudi.

74. Cobo (2005, 74 eta 124). Abortuarekin emalketa produktuaren bizitza babesten da, baina ez bizitza independentea.

75. ZKko 170 art.ko mehatxuengatik babes-agindua ezartzeak ez luke eraginkortasunik izango gizarte-talde oso bat babestu behar balitz. Gainera, horrek babesaren funtsa den familia ingurua gaindituko luke.

76. Delitu honen inguruan AGk 2009-5-12ko epaian (510/2009 zbkiduna) eman duen interpretazioa interesgarria da, tipoa aplikatzeko garrantzitsua beldurrarazpen egoera sortu izana dela esan zuen, portaeren errepikapenari garrantzia kenduz. Zbdeko B) V.B) oinarriak testuak haxe dio: "Lo relevante para la aplicación del tipo del maltrato no es la reiteración documentada de una conducta, sino la creación de un espacio de terror por parte del sujeto activo mediante la reiteración de conductas violentas tendentes a degradar al sujeto pasivo que las recibe".

77. Coboren iritziz delitu horien ondasun juridikoa giza-elkartasuna da, bizitza eta osasuna arriskuan daudenean (2005; 330-331), nahiz eta autore batzuk ondasun juridikoa, zuzenean bizitza eta osasuna direla esan.

babes-aginduaren ezarpenik ekarri beharko stricto sensu, baina horietan oinarrituta, PKLko 544 bis art.ko kautela-neurriak, ZKko 57 art.rekin harremanduta, ezartzeko aukera legoke.

Faltei dagokienez, ZKko 617 art.ko tratu txar eta lesioek eta 620. art.ko mehatxu, derrigortze, irain edo iseka faltek, babes-agindua ezartzea eragin dezakete, baina horretarako subjektu pasiboa familia artekoa izan beharko da, subjektua ezkontidea, ezkontide ohia, andrazko bikotekidea edo bikotekide izandakoa den kasuetarako portaera horiek delitu bihurtzen baitira, arinak izan arren.

PKLko 544 ter art.ak oso-osoko babesak merezi duten egoerak definitzen ditu, eta ZKko 173.2.art.an zerrendatzen diren pertsonen kontra burutu delitu edo faltek horien segurtasuna ukitu badute, babesak eman daitekeela dio. Aurreikuspen horrek babesik eza ekar dezake, ez baitago argi zer segurtasunari buruz ari den. Segurtasun ekonomikoa edo psikologikoa, adibidez, barnebil daitezke? Hala balitz, delitu eta falten zerrenda luzeagoa litzateke. Interpretazio hori erruztatuen kontrako litzatekeela kontuan hartuta, delitu eta falten zerrenda modu murriztailean interpretatzeari egokiago irizten diot.

9.2. ZKko 173.2.art.an jasotzen diren eta legearen arabera babes berezia behar duten pertsonen zerrenda

Artikulu honek mugatuko ditu genero-indarkeriatzat eta familia-indarkeriatzat joko diren delituak, artikuluan aipatu pertsonak subjektu pasibo direnetan bakarrik emango duelako legeak oso-osoko babesak. Pertsona horiek hauexek dira:

- Delituaren subjektu aktiboaren ezkontidea, elkarrekin bizi ala ez⁷⁸.
- Subjektu pasiboaren ezkontide ohia, elkarrekin bizi ala ez⁷⁹.
- Erasotzailearekin antzeko maitasun-harremana duen pertsona, berarekin bizi zein ez.
- Erasotzailearekin antzeko maitasun-harremana izan duen pertsona, berarekin bizi ala ez.

- Erasotzailearen ondorengoak (odol, adopzio edo ezkontza bidezkoak) berarekin bizi badira.
- Bikotekidearen edo bikotekidea zenaren ondorengoak (odol, adopzio edo ezkontza bidezkoak) erasotzailearekin bizi badira.
- Erasotzailearen aurrekoak (odol, adopzio edo ezkontza bidezkoak) berarekin bizi badira.
- Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurrekoak (odol, adopzio edo ezkontza bidezkoak) erasotzailearekin bizi badira.
- Erasotzailearekin bizi diren neba-arrebak (odol, adopzio edo ezkontza bidezkoak).
- Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren neba-arrebak (odol, adopzio edo ezkontza bidezkoak), horiek erasotzailearekin bizi badira.
- Erasotzailearekin bizi diren adingabeak.
- Erasotzailearekin bizi diren ezgaiak.
- Erasotzailearen guraso-ahal, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo egitezko harreraren menpe dauden adingabeak.
- Erasotzailearen ezkontide edo bizilagunaren guraso-ahal, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo egitezko harreraren menpe dauden adingabeak.
- Erasotzailearen guraso-ahal, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo egitezko harreraren menpe dauden ezgaiak.
- Erasotzailearen ezkontide edo bizilagunaren guraso-ahal, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo egitezko harreraren menpe dauden ezgaiak.
- Familia-elkarbizitzaren gunean edozein motatako harremanen bidez sartuta dagoen beste edozein pertsona.
- Zentro publiko edo pribatuetan zaintzapean dauden pertsona bereziki ahulak.
- Zentro publiko edo pribatuetan jagoletzapean dauden pertsona bereziki ahulak.

78. Ezkontideak elkarrekin bizi direla uste izaten da.

79. Banatutako edo dibortziatutako pertsonak banatuta bizitzeko eskubidea dute, eta beraz, egoera hori dela uste izango da, nahiz eta beste arrazoi batzuegatik (ondorengoak, arrazoi ekonomikoak), elkarrekin bizitzea posiblea izan.

9.3. Aipatu delitu eta falten berezitasunak

Genero-indarkeriagatiko delitu eta faltek, dagokien zigorrak gain, ZKko 57. art.ko zigorrak erantsiak derrigorrez ezartzea ekarriko dute. ZKko 57. art.ak testu bereko 48.2. art.ari igortzen gaitu, eta horrek biktimarekiko hurbiltze debekua ezartzen du ezinbesteko neurri gisa, eta ahalezko neurri gisa, ZKko 48. art.ko beste neurriak aurreikusi ditu.

Bestalde, genero-indarkeria delituak burutzeagatik ezarritako edozein zigorrak eten edo ordezkatu ahal izateko, derrigorrez bete beharko ditu erantzuleak biktimarengana hurbiltzeko debekua (83.1. art.ko azken paragrafoa eta 88.1. art.ko azken paragrafoa, biak 83.1.2 art.-ari erreferentzia eginez), eta heziketa, lan, kultura, bide-hezkuntza zein sexu-hezkuntzako programetan eta horien antzekoetan parte hartzeko betebeharra (83.1. art.ko azken paragrafoa eta 88.1. art.ko azken paragrafoa, biak 83.1.5 art.ari erreferentzia eginez), artikuluek aurreikusi beste neurrien ezarpenari kalterik egin gabe (azken hauek ahalezkoak izanik). Zigorrak ordezkapenerako, gainera, 88. art.ak berreziketarako eta tratamendu psikologikorako programa bereziak bete beharko ditu.

Betebehar bereziak ezartzen zaizkio, beraz, kondenatuari zigorrak eten edo ordezkatu ahal izateko.

Espetxe-zigorrak egun gizarte lanen edo lokalizazio iraunkorraren truke ordezkatu daiteke (lehen ez bezala, ZKko azken erreforma aurretik gizarte lanen truke bakarrik ordezkatu baitzitezkeen).

Neurri hauek guztiek, asmo txalogarria izan arren, gehiegizkoak dira zenbait kasutan. Genero-indarkeriagatiko kondenak hain ugariak izanda, bere garaian aurreikusi ez ziren ondoreak eman dira; izan ere, administrazioek duten lan-karga handia dela eta, eta aurrekontu mugatuek dakartzaten arazoak direla eta, ezarri zigorrak eta betebehar horietako batzuk sinbolikoak baino ez dira, horien eraginkortasuna eta kontrola oso zaila baita. Aldi berean, kontraesankorra den mezua hedatzen da, gizarteak “teorikoki larriak diren zigorrak praktikan betetzen ez direla” pentsa baitezake.

Esparru honetan ere, ez da aurreikusi epaileak biktima entzun ahal izatea, neurri zehatz horien egokitasunaren inguruko iritzia eman dezan.

10. Ondorioak

Jendarteak aurrera eta atzera egin du genero-bortizkeriaren aurkako borrokan. Hala ere, lana dago egiteko.

Definizioetan hutsune legalak daude, eta nabariak dira zehaztasun eta koherentziarik eza legerian. Zigorrak erantsien ezinbestekotasuna ere txarto baloratzen da. Bestelako delitu batzuk, bikimetik kanpoko pertsonen egindako sexu-erasoak esaterako, generoko bortizkeriaren delitutzat ez hartzeak ere arazoa sortzen du. Gainera, biktimak ez parte hartzea, haren beharrak ez ezagutzea, edo benetan entzuna izateko tokirik ez egotea ere kritikatzeko da (areago emakume etorkinak edo minusbaliotasun bat daukatenak badira).

Legeriari dagokionez, “familia-indarkeria” eta “genero-indarkeria” kontzeptuak argitu behar dira. Biek bat egiten dute batzuetan, baina arazoi eta jatorri ezberdinak daukate, eta beraz, konponbide eta trataera ezberdinak eduki behar dituzte.

Zigor zuzenbidea izan daiteke, eta bada, emakumeen aurkako indarkeriarekiko ezespren soziala erakusteko tresna. Hala ere, bide hau gehiegi erabiltzeak, antolamendu juridikoaren tresnarik autoritarioenaren aldeko neurri gabeko hautua suposatzen du, feminismoaren ohiko idealetatik urrunduz.

Beraz, legegileak ahalegin handia egin behar du “bortizkeriarik larriena” eta “bortizkeria arina” bereizteko, bakoitzari zigorrak egokiagoa eta proportzionalagoa esleitzeko.

Zigorrak egokitu behar dira, batez ere adostasunez neurritz kanpokatzen hartzen direnak (espetxera bidaltzea lesiorik ez dakarren generoko bortizkeria saio bakarragatik, ZKko 153 artikulutik ondorioztatzen den portaera, esaterako). Jakina, honekin batera genero-indarkeria (batez ere larria) hutsik gabe jazarri behar da.

Edozein bortizkeria motaren aurrean sistema penala erabiltzeak borrokatu nahi den giza fenomenoaren garrantzia gutxiesten du, eta bestelako interbentzio sozialek egin ditzaketen ekarpenak baztertzeko ditu. Hauxe da, proposamenen zorrozkeriak eraginkortasunik eza dakar, biktimei emandako esperantzak berriro ere bete gabe utziko dituelarik.

Zalantzarik gabe, genero-indarkeria bere konplexutasun osoan aztertu behar da (baita 1/2004 legeak jasotzen ez dituen aukerak ere), eta ikertu eta ezagutarazi hura pairatzen duten emakumeen errealitatea, emakumeen erantzunak hobeto ezagutzearren (horiek parte hartzen duten eragileen aurreikuspenekin etorri ala ez). Onarpen hau, behar den denboraz, baina luzatu gabe, erantzun hobea eta egokiago bilakatu behar da, emakumeen

kontrako bortizkeria saihesteko, aurreikusteko eta soilik azken kasuan (ahalik eta kasurik gutxienetan) zigortzeko (zigor zuzenbidearen bidez zigortzeko beharrik ezagatik, noski, ez tolerantziagatik).

Emakumeek erasotzailearengandik banandu edo haiekin harremana mantendu nahi izan ahal dute; egin dutena barkatu edo zigortu nahi izan ahal dute, maite edo gorroto ahal dituzte; zentzatu, beldurtu, ohartarazi edo euren arreta eskatu nahi izan ahal dute... eta ziur nahi dutela tratu txarrak ez errepikatzea, bortizkeria fisikoa zein hitzekoa amaitzea (beti ere hori posiblea dela pentsatzen badute). Babestuta, ziur eta maitatuak sentitu nahi dira.

Aurrekoarekin bat eginez, botere publikoek ez dute zigor zuzenbidea lehenetsi behar konponbide bezala, ezta ere salaketa bultzatu nola hala. Baina ezin dira instrumentalizatu, kriminalizatu edo errudun sentiarazi, haien argibideak jarraituta salatzea erabakitzen duten emakumeak.

Proposamen hauetako batzuk interesgarriak izan daitezke:

- Emakume eta gizonen erosketa-ahalmena eta bizi-maila (egoera ekonomikoa oro har) benetan berdintzea.
- Emakumeak lan merkatuan era justuan eta baldintza berdintasunean txertatzea (ez du zertan izan gaur egun dagoen lan merkatuan, baizik eta ikuspegi ez-androzentriko batetik sor daitekeen horretan, ekarpen femeninoak alde guztietatik baloratzen dituen).
- Bikote edo familia eredu bakarra ez inposatzea (edo bultzatzea). Horrekin batera, ondorengo zein arbasoen zaintza elkarbanatzea, baita etxeke lanak ere.
- Familia gatazkak konpontzeko benetako negoziazioa ziurtatzen duten konponbide baketsuak suspertzea.
- Borrokatu nahi dituen fenomenoek hobeto egokitzen zaien erantzun penala ematea. Eta alde horretatik:
- Kasu larriak eta arinak bereiztea, eta bakoitzari trataera penal kontsekuente eta proportzionala ematea.
- Legegintza-teknika hobea, baratzagoa eta zuhurragoa. Antzemandako akats, inkoherentzia eta hutsuneak nahitaez zuzentzea.
- Malgutasuna konponbide eta zigorretan.
- Esku hartzen duten eragileen benetako kontzientziak.

- Genero-indarkeria pairatzen duten emakumeen eskariei benetako arreta eskaintzea (entzumen akitboa, benetan eraginkorrak izan daitezkeen konponbideak bilatzeko).
- Bestelako zailtasun erantsiak, minusbalotasunak edo migrazio egoerak, esaterako, baloratzea. Adibidez, hizkuntza ofizialak menperatzen ez dituzten atzerritarren kasuan, biktimak eta erasotzaileak interprete ezberdina edukitzeko beharra baloratzea.
- Erasotzaileentzako programa hezigarriak bultzatzea, beste zigor batzuen orde.
- Diru inbertsio baliogarriak (eragileak, biktimak eta gizartea, oro har, etsiaraziko ez dituztenak).

Sakoneko eta luzaroko eraldaketa behar dugu. Beraz, zuzenbidea ez bada tresna egokia, aldatu egin behar dugu. Horretaz gain, nahikoa ez bada, osatu egin behar dugu. Hezkuntza garrantzi handiko abiapuntua da. Egiaz, ez hezkuntzak, ez legeriak, ez dute emaitza onik eman gaur arte. Alde batetik, izan daiteke hezten duten pertsonak beraiek euren esperientziek mugatuta daudelako izatea. Zorionez, denak ez garamatza ezkortasunera; aurrerapen batzuen adierazleak ere badaude. Gaur egun horrenbeste eztabaida sortzen duen legatu juridikoaren zati bat ez da zalantzan jarriko hamarkada pare bat barru (aldatzen ez bada), etorkizuneko jendartearentzat oinarria sortuz.

Aliatuak bilatu behar ditugu, ez aurkakoak. Zigortze hutsetik nekez lortuko dira jarraitzaileak. Hezkuntza eta kontzientziakaren alde egin dezagun, beraz, eta hori, segur aski, giza eta lege-erantzun hobe bihurtuko da.

11. Bibliografia

- ARANGÜENA FANEGO, C. (1991) *Teoría general de las medidas cautelares en el proceso penal español*. Barcelona: Bosch.
- ASÚA BATARRITA, A. (2008). "El significado de la violencia sexual contra las mujeres y la reformulación de la tutela penal en este ámbito. Inercias jurisprudenciales". Non: LAURENZO, P.; MAQUEDA, M.L.; RUBIO, A. (Koord.): *Género, violencia y derecho*. Valencia: Tirant lo blanch alternativa.
- BODELÓN GONZÁLEZ, E. (2008). "La violencia contra las mujeres y el derecho no-androcéntrico: perdidas en la traducción jurídica del feminismo".

Non: LAURENZO, P.; MAQUEDA, M.L.; RUBIO, A. (Koord.): *Género, violencia y derecho*. Valencia: Tirant lo blanch alternativa.

- COBO DEL ROSAL, M. et al. (2005) *Derecho penal español. Parte especial*. Dykinson S.L.
- DÍAZ PITA, M^a P. (2009). "Violencia de género: el sistema de medidas judiciales de protección y seguridad de las víctimas". NUÑEZ CASTAÑO, E. (zuz.) *Estudios sobre la tutela penal de la violencia de género*. Valencia: Tirant lo blanch.
- ESCUCHURI AISA, E. (2006). "Manifestaciones delictivas de la violencia de género". BOLDOVA PASAMAR, M.A.; RUEDA MARTÍN, M.A. (Koord.) *La reforma penal en torno a la violencia doméstica y de género*. Barcelona: Atelier.
- GIMENO SENDRA, V. et al. (1999) *Derecho procesal penal*. Madrid: Colex.
- GÓMEZ COLOMER, J.L. (2007) "Violencia de género y proceso". *Abogacía práctica*. Valencia: Tirant lo Blanch.
- GRAZIOSI, M. (2008) "El derecho frente a la violencia "de género"". Non: LAURENZO, P.; MAQUEDA, M.L.; RUBIO, A. (Koord.): *Género, violencia y derecho*. Valencia: Tirant lo blanch alternativa.
- HERRERO, S. (2010). "La irresistible fascinación del derecho penal". *Revista del Consejo General de la Abogacía Española*, 61. zbkia. 2010eko ekainekoa.
- LARRAURI PIJOAN, E. (2005) "¿Se debe proteger a la mujer contra su voluntad?". LIDÓN, José María. *La ley de medidas de protección integral contra la violencia de género. Cuadernos penales*, nº 2. Universidad de Deusto, 2005.
- ———. (2008) "Cinco tópicos sobre las mujeres víctimas de violencia... y algunas respuestas del feminismo oficial". Non: LAURENZO, P.; MAQUEDA, M.L.; RUBIO, A. (Koord.): *Género, violencia y derecho*. Valencia: Tirant lo blanch alternativa.
- LAURENZO COPELLO, P. (2008) "La violencia de género en el derecho penal: Un ejemplo del paternalismo punitivo". Non: LAURENZO, P.; MAQUEDA, M.L.; RUBIO, A. (Koord.): *Género, violencia y derecho*. Valencia: Tirant lo blanch alternativa.
- LÓPEZ BARJA DE QUIROGA, J. (2010) *Tratado de derecho procesal penal*. XXIV-XXVII kapituluak (725-807 orrialdeak). Aranzadi.
- MAGARIÑOS YÁNEZ, J.A. (2007) *El derecho contra la violencia de género*. Editorial Montecorvo, S.A.
- MAQUEDA ABREU, M.L. (2008) "¿Es la estrategia penal una solución a la violencia contra las mujeres? Algunas respuestas desde un discurso feminista crítico". Non: LAURENZO, P.; MAQUEDA,

M.L.; RUBIO, A. (Koord.): *Género, violencia y derecho*. Valencia: Tirant lo blanch alternativa.

- ORTUBAY FUENTES, M. (2004) "Respuesta internacional a la violencia contra las mujeres en la CAPV". Non: LIDÓN, José María. *Las recientes reformas penales: algunas cuestiones. Cuadernos penales*, nº 1. Deustoko unibertsitatea, 2004.
- ———. (2007). "Sobre la eficacia de la tutela penal frente a la violencia sexista". *Ibilbide aldizkarian, boletín informativo sobre políticas sociales frente a la marginación*, 1. zbkia, 2007ko martxo eta apirilkoa. Ikusbide.
- PUJADAS TORTOSA, V. (2008) "Teoría general de las medidas cautelares penales. Peligrosidad del imputado y protección del proceso". *¿Instancia de parte y oficialidad en la adopción de las medidas cautelares penales?*, VII. Kapituluak, IV puntua. Marcial Pons, 191-194 orrialdeak.
- SIBONY, R. et al. (2010) "Proceso penal práctico en la ley integral contra la violencia de género". *Las medidas judiciales de protección y seguridad de las víctimas*, XI. Kapituluak. Bosch, 241-284 or.

Web orrialdeak

- *Bizkaiko genero-indarkeriari buruzko behatokiaren web orrialdea*. (Azken kontsulta 2010-9-29) http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_dokumentuak.html.
- CASTRO GARCÍA, C. (2005) *El camino serpenteante de los últimos 30 años (1975-2005)*. (Azken kontsulta 2010-9-29) <http://singenerodedudas.com/Documenta/CaminoSerPIgualdad.pdf>.
- DE LAMO RUBIO, J. (2000) *La protección cautelar de la víctima de determinados delitos: el nuevo art. 544 bis de la Ley de Enjuiciamiento Criminal*. (Azken kontsulta 2010-9-29) <http://www.uv.es/ripj/4lam.htm>.
- Gizonduz web orrialdea. (Azken kontsulta 2010-9-29) http://www.berdingune.euskadi.net/u89-congizon/es/contenidos/información/quees/es_gizonduz/quees.html.
- Ministeritza Fiskalaren uztailaren 18ko 4/2005 zirkularra, genero-indarkeriaren kontrako oso-osoko babes neurriei buruzko lege organikoa aplikatzeko irizpideei buruzkoa. (Azken kontsulta 2010-9-29). http://www.fiscal.es/cs/Satellite?buscador=1&c Page&cid=1240559967917&codigo=FGE_&language=es&newPagina=4&paginam e=PFiscal%2FFPage%2FFGE_buscadorArchivo Document&palabra=genero.
- ULL SALCEDO, M.V. (2005) "La prisión provisional y la jurisprudencia del Tribunal Constitucional". *UNED, Zbde Fakultateko buletina*, 26. zbkia. (Azken kontsulta 2010-9-29) <http://e-spacio.uned.es/fez/eserv.php?pid=bibliuned:BFID-2005-26-419BA18C&dsID=PDF>.